

Berako Maratoi Erdia
Igande honetan 530 lasterkari aterako dira → 41

NAFARROAREN

EGUNA → 34

Apirilaren 24an Baigorri

IGANTZI → 14

Udaberriko bestak
apirilaren 15etik 17ra

ITUREN → 22

Osasun kontsultarako
dirulaguntzaren zain

LEITZA → 27

Jose txo Urrutiaren marka
ahalegina larunbatean

URDAZUBI → 35

Zergarik ez,
zeharbideko lanengatik

Rosa ARBURUA | Historia irakaslea Berako Toki Ona Institutuan

Euskal Herriko mugaz gaineko portugez pasan izeneko ikerlanean ari da buru-belarri

Irungo Udalak ematen duen José Antonio Loidi Beka irabazi berri du aipatu ikerlana egiteko. Bertze lan batzuetan, lehendik ere ikertua du partzialki kontrabandoaren gaia, Oraingoan, ordea, kontrabandoaren alderik gordinena du esku artean, pertsonena, eta zehazki, XX. mendeko bigarren erdian milioi bat inguru portugaldar gure mugetan gaindi Frantziara eramane kontrabandoarena.

ERREPORTAJEA → 4-5



Saratarrentzat aurtengo edizioa berezia izanen da. Izan ere, Barandiaranek Sarari buruz bere garaian gazteleraz idatzitako liburua, orain eskuarara eta frantsesera itzulia, Biltzarrean eskuratu ahal izanen baita. Euskaltzaindiak bertze lau argitalpen aurkeztuko ditu. Eta hori nahikoa ez balitz, aurten ere ehun idazle baino gehiago espero dituzte. Euskal kulturaren egutegian egun seinalatua bihurtu da Sarako Idazleen Biltzarra.

ELKARRIZKETA | Mixel URBISTONDO → 3



Sarako XXVIII. Idazleen Biltzarra | Apirilaren 25ean, Bazko Astelehena

Idazleen Biltzarrak jendetza bilduko du Saran Bazko Astelehenean

AZOKAK → 12/32

Udaberriko azokak eginen dira Lesakan eta Baztanen

NARBARTE → 25

105.000 metro koadroko lur industrialak sortu nahi du Udalak

GOIZUETA → 28

Irailekuen konbenioa azalduko da ostiralean

OSPAKIZUNAK → 30

Errugbilarien besta larunbatean Larraintzarren

KIROLA → 31

Herri Kirol Jolasen kanporaketa Berroetan

Udaberriko Azoka Lesakan

Apirilak 17 Igandea

Sarrerakin kontsumizioa (Haizea kafetegia, Kattu edo Atxaspin)

Ordutegia: 10:00-19:00

Lekua: Lesakako frontoia

ANTOLATZAILEAK:



LESAKAR
ZERBITZUEN
E L K A R T E A

INTZURI optika, OREKA dietetika eta nutrizioa, KATTAGORRIA mertzeria lantzeria, GEMA IGARZABAL estetika
ONPART jantzi boutiquea, BODOGAK arropadenda, JIANPINA haur arropadenda, TELLETXEA argazki-gintza,
ORDOKO altzariek, TXINELKA zapatadenda, ORTZADAR arropa denda, MAITE IGARZABAL iluspeindegia

LAGUNTZAILEA



Lesakako udala

TTIPI-TTAPAK ZURE LAGUNTZA BEHAR DU

giure bezeroek
aukeratutako
proiektua
zenbakia
15.996

Zure laguntza eskertzeko

DOKUMENTU-POLTSA

bat izanen duzu opari



Boligrafo, identifikazio txartela eta mugikorrerako konpartimentuak



ttiPI-ttapa

Eska ezazu TTIPI-TTAPAREN proiektua aukeratu izanaren frogagiria Nafarroako Kutzaren zure bulegoan eta ekar ezazu TTIPI-TTAPARA abenduaren 30a baino lehen.

Aurten 28. aldiz Eskual Herriko hainbat idazle eta margolariren topaleku bihurtuko da Sara, Bazko Astelehenez, apirilak 25, eginen den Idazleen Biltzarren harira. 1993tik egiten

den bezala, kiroldegian eginen da (10:00-18:00). Dena dela, aurtengoa berezia izanen da, Joxe Migel Barandiaranek Sararen gainean egin zuen liburua eskuarara eta frantsese-

sera itzulia izan baita eta liburua Biltzarrean eskuratzen ahalko baita. Hori baino lehen, ortziral honetan, hilak 15, Lurberri gelan eginen da liburuaren agertzea, 11:00etan.

Mixel URBISTONDO | Sarako hautetsia

«Kulturaren arloan onduz doan zerbait da Sarako Idazleen Biltzarra»

G. PIKABEA | SARA

Dagoeneko 28 edizio bete ditu Sarako Idazleen Biltzarrak. Nola-ko balorazioa eginen zenuke?

Onerako aldatu da. Hastapenean, beti bezala, idazleak uzkur eta gutti ziren eta orain gero eta gehiago badira. Jendeak Bazko Astelehena Idazleen Biltzarre-rako hartua du eta sekulako jendetza biltzen da. Eskual Herriko jendea biltzen da, Hegoaldetik eta Iparraldetik etorria. Erdaldun zenbait ere etortzen da, baina gehienak eskualdunak.

Zein helbururekin hasi zen Idazleen Biltzarra antolatzen?

Jean Michel Garat medikua hasi zen lehen aldikoz antolatzen, eta 1984ko Bazko Astelehenez egin zen. Idazleen biltzea izan zen helburua, eta aldi berean, jendeak idazleak ezagut zitzan eta idazleak beren obrak jendeari agertzeko. Eta helburu horrekin segitzen dute orain Eskual Kultur Erakundeak eta Sarako Turismo Bulegoak. Ez da Durangoko disko eta liburu azokarekin konparatu behar, baina Iparralderakotz gauza polita da. Ideia ona izan zuen Garat medikuak.

Zenbat idazle biltzen dira?

Indar handia hartua du



Mixel Urbistondo Sarako hautetsia.

ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

eta orain ehun idazletik goiti biltzen dira. Gainerat, ez dira idazleak bakarrik, margolariak ere badira. Kulturaren arloan onduz doan zerbait da Sarako Idazleen Biltzarra.

Zer erran nahi du Idazleen Biltzarrak Sarako herriarentzat?

Inportantea da. Idazle batek bere kulturari izigarrizko ordaina uzten dio, lekukotasun bat eta idatzia beti hor geldituko da. Saran, maleruski, gutti dira idazleak, idazle uxkurak gira, baina badira batzuk. Lehen ere izan dira: 1640

AURTENGO BEREZITASUNA

«Jose Migel Barandiaranek Sararen gainean izigarrizko lekukotasuna egina du, baina gaztelaraz. Orain, ordea, eskuaraz eta frantsesez itzulia izan da eta liburua Idazleen Biltzarrean izanen da. Hori izanen da aurtengo berezitasuna. Halere, hori baino lehen, liburu horren agertzea apirilaren 15ean eginen da Lurberri gelan»

inguruan, sortzez urdazubierra eta Saran erre-tore egon zen Axularrek liburua egin zuen; 1770 aldera Saran apez egon zen Larregik testamendu zaharra eta berria eskuarara itzuli zituen... Geroztik izan dira gehiago: herriko semeak ziren Jean Baptiste eta Leon Elizanburuk, erraterako, bertso eta kantutari ainitz utzi dute.

Aurtengo berrikuntza zein izanen da?

Bi urtetarik norbait omentzen da, eta aurtentzen ez da izanen. Halere, aurtengo biltzarrak izanen du berezitasuna.

Jose Migel Barandiaran Ataungo apeza 15 urtez Saran egon zen eta lan handia egin zuen. Sararen gainean izigarrizko lekukotasuna egina du; etxez-etxe pasatu zen, animaliak kondatu, etxeetan nor bizi ziren, mendi, leku eta ur erreken izenak bildu... Baina liburu hori gaztelaraz egin zuen. Orain, ordea, eskuaraz eta frantsesez itzulia izan da eta lan hori Idazleen Biltzarrean izanen da. Hori izanen da aurtengo Biltzarrearen berezitasuna. Halere, hori baino lehen, liburu horren agertzea apirilaren 15ean eginen da, Lurberri gelan. Lanean aritu direnak eta dirua eman dutenak omenduak izanen dira. Edozein joaiten ahal da eta jan-eda-na ere izanen da.

Noren lana izan da?

Frantsesera Kattalin Torrikak itzuli du eta eskuaraz Ataungo Aizpuru anaiek. Baina Erramun Baxok zuzendari dutela, talde bat ere sortu da zuzenketak egiteko eta liburuak hementxo gisara emateko. Dirulaguntza eman dutenen artean, Barandiaran Fundazioa, Sarako Herria, Eskual Kultur Elkargoa eta Ataungo Udala daude, bertzeak bertze. Lan gaitza hartu da, eta liburu polita gelditu da.

HISTORIA → ROSA ARBURUAREN AZKEN LANA

Gure mugaz gaindi ibili zen portugaldarren kontrabandoa aztergai

Irungo Jose Antonio Loidi beka irabazi du Toki-Ona institutuan irakasle den ikerlariak

Gurasoak etxalartarrak izanik, kontrabandoaren aditza ttikitatik du Rosa Arburuak. Gai hori landu zuen 1940-1960 Bortzirietako Gaztiak liburuen kapitulu batean eta gaiari buruzko monografikoa argitaratzekotan dauka udaran, Nafarroa osoko datuak erromatarren garaitik honat bilduz. Orain, kontrabandoaren alderik gordinena aztertzen ari da, pertsonena, eta zehazki, XX. mendearen bigarren erdian milioi bat inguru portugaldar gure mugetan gaindi Frantziarako bidean eraman zituen kontrabandoarena.

Aitor AROTZENA | BERA

«Gaia ixilpekoa da, pasatu ziren bezain ixilpekoa». Hala dio Rosa Arburua Goienetxek, XX. mendearen erdialdean Portugaletik Frantziara ihesean joan zirenen kontrabandoaz ari denean. Gai hau lantzen ari da Filosofia eta Hezkuntz Zientzietan doktorea eta Berako Toki Ona Institutuan Historia irakaslea denak eta Irungo José Antonio Loidi beka irabazi du *Euskal Herriko mugaz gaineko portuges pasan* izenburuko lana gauzatzeko. Nolabait, kontrabandoaren alderik ilunena, gordinenaz ari da. «Kontrabandistek bertze alaitasun bate-

kin solasten dute kontrabandoari buruz, baina honetan... jendeaz, pertsonen kontrabandoaz ari gara, eta hori ez da kobreakin, puntillekin, aziendekin edo tabakoarekin aritzea bezala». Horregatik zail egin zaio gaiak solasteko prest dagoen mugalariak topatzea. «Gaur egun, kontrabandoaz solasteko ez da arazorik izaten normalean—aipatu digu Arburuak—, baina ni ikertzen hasi nintzenean, ez pentsa! Orain jendea askatu da eta solasten du, medietan atera da... Baina jendea pasatzearena komentatzen duzue, normalean ez dute solastu nahi, zaila da



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Rosa Arburua historia irakasleak kontrabandoari buruzko hainbat ikerlan egin ditu.

kontaktua egitea... Horregatik nahiago dut izen-abizenik ez eman». Baina ixilpekoa izanagatik, historia hau gertatu zen eta horregatik jakin eta plazaratu behar dela uste du Arburuak. «Klandestinoa zenez zaila da kalkulatzeari,

ESALDIA

«Errekan ito edo mendian "hildako" portugaldarren kasu larriak badira»

Rosa ARBURUA
Historia ikerlaria

baina Portugaletik 900.000-1.000.000 pertsona atera zirela eta Europa aldera joan zirela kalkulatu da. Horrela dio Victor Pereira ikerlariak. Gehiengo Frantziara joan zen. Gehiengo horretatik gehiengo ixilpean eta horietatik gehien-gehienak gure inguru honetatik pasatu ziren. Pentsa zenbat mila ibili ziren!» dio ikerlariak.

EZBEHARRAK

Horien artean ezbeharrak izan ziren eta herrietako jendeak denak adituak dituzte istorio-

ak, «abandonatuta utzitakoak, gaizki tratatutakoak, mendiz ordu bat ibili behar zutela erran eta Aniz-Berroetan utzi eta Aldudera pasatu behar, ordu bat baino gehiago da hori... Horrelakoak badira» onartu du Arburuak. «Denborekin "leyenda urbana" batzuk ere izanen direla pentsatzen dut, baina egia da gertakari ilunak ere izan zirela. Bako epaitegietan arakatzan aritu naiz Beran, Hondarribian... eta badira portugaldarren heriotz agiriak. Errekan ito edo mendian "hil" egi-

ten ziren eta karteran agiriren bat bazeramaten jakiten zen portugaldarrak zirela, ez beti baina kasu batzutan bai. Badaude horrelakoak eta jendearekin solasten duzu eta denak gauza bera erraten ditate: "Gertatzen ziren, bai. Ikaragarria zen!"».

«KONTRABANDOAREN BILAKAERA NATURALA»

Portugaldarrak pasatzearena, kontrabandoaren bilakaera naturala izan zela diote mugalariak, baina kontrabandista guziak ez ziren horretan aritu, gutti batzuk izan ziren. Gainera, ez zen ongi ikusia izaten. "Mutikoa mutikoa, ez zakela ez pertsonarik ez armarik pasatu" erraten zen. Baina ez zen gure muge-tan barrena jendea pasatzen zen lehen aldia. Gerra Zibilaren inguruan ere izan ziren errepublikarrak bertze alde-ra pasatzen zituzten mugalariak. Beraz, ez zen lehen aldia, baina egoera ezberdina zen. Mugalariak ere bakoitzak bere moduan gogoratzen dute. «Batzuk diote beraien lana zela, kontrabandoan ibilitakoa zela eta gero portugesak pasatu zituela, baina ongi tratatzen zizutela. Bertze batzuk erraten dute, "etortzen ziren andre batzuk bere takoiekin, prestatu gabeak... ez zuten abantzen, erdi eri, gu beldurrez...". Beraz, estuasun horretan zer gertatzen ahal zen...».

ONIEZ, AUTOZ, AUTOBUSEZ, KAMIOIEZ...

Portugaletik honaino etortzeko garraio-bideari dagokionez, denetik izan da. «Batzuk, 1955 urte inguruan oinez ere egin izan zuten. Gero, kotxez hasi ziren, Versailles modelo handi horietan izaten zi-

BALDINTZAK

«Pasaporte izanez gero, legalki alde egiterik bazeukaten, baina pasaportea lortzea hagit zaila zuten. Nekazari izate-agatik bakarrik ez zuten pasaportetik izaten ahal eta bertze baldintza batzuk ezin ziren bete. Baldintza bat alfabetatua izatea zen, eta garai hartan portugaldarren gehiengoa alfabetatua gabea zen».

JATORRIA

«Nekazaritza mundukoak ziren aunitz, baina baita eskulargileak ere, arotzak... Bertze talde minoritario politikan sartua zegoen jendearena zen, emigratio ideologikoa».

tuzten eta igual bi autotan joaten ziren, bi txoferrekin eta 7-9 portugaldar sartzen ziren, baita maleteroan ere. Auto potenteak eta kapazitate handikoak behar zituzten. Gero, masifikazioa ailegatu zen eta kamioietan hasi ziren eta kasuren batean autobusean ere, bertze pertsona legalekin nahasiak. Esne zisternatan ere ekarri zituzten eta horietako batean, bi portugaldar ito egin zirela kontatzen dute».

Gauza berezi bezala ikasi du Arburuak bazirela euskaldunak Portugalgo muga hartara joaten zirenak ere, jendea bertan hartzeri eta honaino ekartzen zutenak: «Linea osoa egiten zuten eta hori oso aipagarria da. Batzuk baziren hemengo muga bakarrik pasatzen zutenak eta bertze batzuk bide osoa egiten zutenak».

EMIGRAZIOA: INOIZ BUKATZEN EZ DEN FENOMENOA



ARTXIBOKO ARGAZKIA

1957tik 1974ra milioi bat inguru portugaldarrek Frantzialdera ihes egin zuten.

«Emigratioa ez da inoiz bukatzen eta emigranteak gara betidanik»

A. AROZENA | BERA

Portugaldarrek emigratzeko joera aspaldidanik izan dute, Rosa Arburuak dioenez. 1957 urtean hasi eta 1974ra bitarte sekulako emigratioa izan zen, batez ere Frantzialdera. Bi arrazoengatik eman zen: Portugal bere koloniatan gerran zegoela eta gazteak derrigortuta bidaltzen zituzten gudara. Eta bertze arrazoiak krisi ekonomiko izugarria zen, miseria zegoen Portugalen eta Frantziak atek zabalik zituen langile hauentzat.

Euskal Herritik Ameriketara artzain joan zen emigratioarekin nolabaiteko itxura zeukan fenomeno honek?

Paralelismoa egiten dut, baina baldintza ezberdinak dira. Adibidez, 1960. hamarkada horretan hementik Ameriketara joaten zirenak, paperak eguneratuak eta kontratu batekin joaten ziren eta hango dei batekin. Baina zergatia berdina da. Hemen baserrian seme-alaba aunitz zeuden eta denentzako ez zegoen eta irtenbidea Amerika joatea zen. **Gaur egun Afrikatik Europa aldera pateratan pasatzen den emigratio horrekin ere badu honek**

nolabaiteko antzekotasuna...

Emigratioa ez da inoiz bukatzen eta emigranteak gara betidanik. Giza-kia Afrikan sortu omen zen eta handik aterata bueltaka gabiltza. Mugalariak beraiek komentatzen dute hori: "Orain ere nola etortzen dira? Patera horiekin eta, antzekoa zen gurea". Jendeak paralelismo hori egiten du, beharrak bultzaturik etortzen dira... Parekotasunik bada, baina bada ezberdintasunik ere, ezin ditugu nahastu.

Gure inguruko jendearekin ez ezik Portugalera bueltatutako jendearekin ere aritu zara solasean...

Portugalen bizi baino gehiago, denboraldiak ematen dituzte, Frantzi-an laketuak daudelako. Emigranteen zorigaitza da hori: azkenean ez dakite nongoak diren eta ez dira ongi sentitzen ez toki batean ez bertzean. Egon naiz emigratu zutenekin, egon naiz pasadoreekin... beraien esperientziak bildu ditut. Portugaldarren kasuan, bi salto egin behar zituzten isilpean, lehenik Portugal eta Espainia arteko muga gainditu eta gero, Espainia eta Frantzia arteko. Han pasadores delakoak ziren eta gure inguruan mugalariak.



Nire txanda
Fernando ANBUSTEGI

Gurutztatuak

Denengan eragina duten bi data berexi ailegatzear dira: Aste Saindua eta Maiatzaren 22ko udal eta foru hauteskundeak. Norberarendako garrantzitsuak izan edo ez, denei eragiten digute biek ala biek. Erran daiteke, gainera, nolabaiteko lotura badutela bien artean: gurutziltzatzea. Jesukristo gurutziltzatu omen zuten eta Aste Sainduan hori gogora ekartzen da. Bertzalde, Maiatzaren 22ko hauteskundeetarako aste batzuk falta badira ere, aitzinetik, Sortu gurutziltzatu dute gaur egungo "erromatarrek". Ez da azken urteetako gurutziltzate bakarria izan, lehendik ere izan dira bertze hainbat epaiketara, pasio eta gurutziltzate. Jesukristorekin egin bezala, Sorturekin ere ezker-eskuin norbait gehiago gurutziltzatu dute gaurko "erromatarrek"? Poncio Rubalcabak mehatxatu du jada. Kontuz Pilatosekin!

Sorturekin ere ezker-eskuin norbait gehiago gurutziltzatu dute gaurko "erromatarrek"?

Ezpala
Aitor AROTZENA

530 h(ero)!

Ez dute telebista albistegiak irekiko bere golik onenak 10 aldiz errepikatuz. Ez dute beraien entrenamenduetan izandako zurmioaren bihurturarekin bortz minutuko irratsaioa beteko. Ez dituzte milioiak irabaziko eta autografoak sinatuko. Baina Beran izanen dira igande goizean Mendi Maratoi Erdia egin asmoz. 530 ero batzuentzat. 530 heroit bertzentzat. 530 kirolari handi, beti.

Nabarmentzekoak



Abel BARRIOLA
Leitzako pilotaria

Gezurra dirudi, baina eskuz binakako bere lehen finala jokatu du Leitzako atzelariak, aurrean Xala lagun duela. Ea zangosagarreko arazorik gabe ailegatzeko den igandeko hitzordura.



Aimar OLAIZOLA
Goizuetako pilotaria

Goizuetako aurrelariak ere lesio larria gainditu ez ezik finalean sartzea lortu du, Beginorekin batera. Eskuz binakako bigarren txapela lortzen saiatuko da bere lau garren finalean.



Joxemiel BARANDIARAN
Sarako Idazleen Biltzarrean

Ataungo ikerlari handiak Sarari buruz egin zuen liburua euskarara eta frantsesera itzuli dute eta Bazko Astelehenez egingen den Idazleen Biltzarrean eskuatzen ahal da.

Atzera begira → 1991.04.25 / TTIPI-TTAPA 60. zbk



Baigorriko Nafarroaren Egunaz

Beheko eta goiko nafartarren arteko harremanak sendotzeko eguna izenburupean, hamahirugarren edizioa bete behar zuen Nafarroaren Egunaz aritu zen duela 20 urteko TTIPI-TTAPAREN erreportajea. Garazi Etxebehere eta Jojo Biddart antolatzaileek ziotenez, «gaur egun, mugak desagertzen doaz, Izpegin muga kendu dute, baina gure buruko muga oraindik ez dugu apurtu eta hori hautsi behar dugu deus egiteko. Ez urtean behin Baigorriara etorri, besta egin eta hurrengo urtera agur egin. Guk bederen ez genuke hala izatea nahi».



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Anduettzeta, 12 • 31760 ETXALAR
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usoa Vicente, Kulturkari SLU **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Sazar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Arantxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Itxaso Arrieta, Markel Lizasoain, Eneko Mitxeo, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Iñaki Telletxea, Joanes Garcia...

Fundazioaren Presidentea Pello Apeztebea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortziritako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2011ko harpidetza sariak

| | | | | | |
|--------------------|----------|-----------------------|-----------|--------------------------------|----------|
| Hego Euskal Herria |37€ | Europa |55€ | Baztan, Urdazubi eta Malerreka |31€ |
| Ipar Euskal Herria |55€ | Amerika eta Australia |123€ | Leitza |15€ |



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

Erramu Eguna eta deabrua

Mikel TABERNA

Jaio nintzen auzora joan gogo dut heldu den larunbatean, hango lagunekin *Erramu-xahar* zelebraztera. Gure haur denboran egun bezetia izaten baitzen Erramu egunaren bezpera. Bertze auzo batzuetan San Joan bezperan izaten zena gurean egun horretan egiten genuen.

Iluntzean, gure plaza partikularrean juntatuko gara, *Zelaian*. Handik eta hemendik mazalasto idorrrak bildu, meta koxkor bat egin, eta su emanen diogu. Ondotik, su horretara botako ditugu hondarreko hamabi hilabeteetako gauza txar guziak: sufritu ditugun gaitzak, suertatu zaizkigun ezbeharrak, egin dizkiguten kalteak, amodiozko penak, eta gainerako nahigabe guziak. Krisi ekonomikoa ez dakit kixkaltzen ahalko dugun! Baina eginahalak eginen ditugu!

Aitzineko urtetik altxatua dugun erramu adaxka bedeinkatua ere bertara botako dugu. Gero, denek salto mukuruaren gainetik, oiherka eta irrintzika, *Erramu-xahar su-berri!* erranez. Izanez ere, adaxka berezi horri xiri bat kendu eta, sutan dela, etxera eramanez dugu lasterka, etxeko sua berritzeko! Herriko Etxeetara eta Iruñeko Parlamentura ere bai. Heldu den maiatzaren 22an sartuko diren agintari berriekin su ona nahi dugu, inor erre gabe denok berotuko gaituena!

Igandean, galtza berriak estreinatu behar ditut. Ez zenekien Erramu egunean zerbait berria jauntziz gero, deabruari begi bat kentzen zaiola? Eta deabrua dantzari ari da Fukushima aldean! Deskuidotan gu ikusten bagaitu, igual bisita egin nahiko digu. Eta horixe bertzerik ez genuen falta! Baina begi guziak kentzeko, galtzak ez eze galtzontzillo pare bat ere estreinatu beharko dut, bederen!

Aspaldi abisatu ziguten zentral nuklearrekin infernua etortzen ahal zela bizidunon mundura. Baina kasurik ez! Gobernuek eta konpainia haundiek ekologista xerbel batzuen arkamele kanta zela erran, eta lasai segitu dute pipa erretzen, irabazien tartarekin euren zorroak gizontzen. Zer pasatuko da martxan diren guziekin? Badugu bat aski hurbil, Tuteran ondoan!

Deusetarako balioko ote dute auzoko suak eta nire galtza berriek?

«Aspaldi abisatu ziguten zentral nuklearrekin infernua etortzen ahal zela bizidunon mundura. Baina kasurik ez! Gobernuek konpainia haundiek ekologista xerbel batzuen arkamele kanta zela erran, eta lasai segitu dute pipa erretzen, irabazien tartarekin euren zorroak gizontzen»

Politikoki zuzena ez banaiz ere, uda berri on denoi

Ainara MAIA URROZ

Denok etorri gara mundura sufritzera eta gozatzera, eta inor ez ala denak gara biktimak. Negua eta udaberria baitira urtearen bi aldeak, eta bata gabe ez dago bestea.

Biktima hitza azken garaiotan gehiegi erabiltzen da, eta ni nekatzen hasi naiz biktimismoz jokatzearekin. Hasteko, ni neu. Badirudi nik bakarrik sufritzen dudala mundu honetan, izan ere norberak bakarrik sentitzen baititu norbere minak, besteok sentitzen ez duzuen maitemina eta ezetzak. Baina nik zuenak ere sentitzen ditut, eta aski da, ez dut gehiago sentitu nahi!

Izan ere, denok sufritzen baitugu eta norberak bere mina bakarrik sentitzen baitu benetan, ala? Hedabideetan etengabean ditugu biktimak hitzetik hortzera, biktimen errekonozimendua eskatuz hainbat biktimek, baina nor da biktima? Zeren, noren biktima? Ez al gara denok biktima, denok sufritzen eta denok sufriarazten aldi berean?

Norbanako bakoitzak galerak izan ditugu eta ditugu etengabean, hori baita bizitza: etengabe galtzea. Edozein dela ere kausa, minbizia, atentatua, bortxaketa, gerra, lurrikara, tsunamia...

Atzo berean aitaren eguneroko besarkada jaso nahi nuen, eta gaur izeba Kontxiren albondiga goxoak jan.

Bihar, berriz, amatxiren banabra gorriak. Bizitzak hiltzea du zor, eta minbizia madarikatuz ez da aita itzuliko. Alferrik da esatea estatu espainiarra nahiz frantziarra terrorista dela, edota ETA erakunde armatua are terroristagoa, eta gerra irabazten ari dela norbait.

Ez, ni ez nago inongo biktimen elkartean, eta ez naiz gehiago biktimismoan eroriko. Bizitzen segituko dut eguneroko urdin hau, eta poztu egingo naiz munduan gehien maite dudana zoriontsu delako beste emakume baten ondoan, ni bakarrik egonik ere. Pozten naiz gaur goizean txoriek kanatatu didatelako eta xuxurlatu aita zenaren mezua: "amodioz gainezka bazaude, ematen segi ezazu, ainarita, erantzunik jasotzen ez duzula iruditzen arren; izan zoriontsu!".

«Denok sufritzen baitugu eta norberak bere mina bakarrik sentitzen baitu benetan, ala? Hedabideetan etengabean ditugu biktimak hitzetik hortzera, biktimen errekonozimendua eskatuz hainbat biktimek, baina nor da biktima? Ez al gara denok biktima, denok sufritzen eta denok sufriarazten aldi beran?»

Irakurleak mintzo

Lehengusu
lehengusinak

Edurne ELIZAGOIEN
Mariskineko borda (Etxalar)

Berekoetxetik datozen Elizagoiendarrei buruz aritzeko asmoa dut, hau da nere lehengusu lehengusinez. Etxalar maite dugun hiru familie buruz eta umorez Txinara ere Etxalar izena eramango genukeen lehengusu lehengusinez.

Zaharrenetatik hasita gazteenara joanena naiz. Hiru zaharrenak Lakateneko bordatik datoz. Zaharrenak Etxalarren alde egin du azken urte hauetan eta hortarako tokirik hobereena eta txarrena hartu du, batzuk aunitz maitatu izanen dutelako eta bertze batzuk aunitz gorrotatu. Animo Patxi-ku, zure lehengusina honek bederen zure borondate ona ikusi du egin dituzun gauzetan!

Bigarrena neska dugu, indar handiko lehengusu usazale emakumea eta Iturraldeko bordan familia polita eratu duena. Zuretzat ere Angelita besarkada handi bat!

Hirugarrena okina dugu, okina eta saltsero xamarra dudarik gabe. Saltsa guztietako perrexila izatea gustatzen baitzaio eta batez ere ihauterietan. Zurekin lagoba, zenbat joanetan aritu izanen gara Lakateneko bordan... Segi umore horretan!

Hurrengoak ni eta ahizpa gara. Nereaz pasoz egiten dut, norberaz ongi aritzea gaizki

ikusia batitago eta nire ahizpaz ariko naiz. Maixkineko bordara pasara, auzoz aldatuz. Bertan dugu Usategietak azken urtetan erakutsi dizkigun gida turistikoa eta gure ataxi usazaleari omenaldirik hobereena egin dionetako bat. Aupa Laura, aunitz bali duzu!

Azkenean Berekoetxeko lehengusina gazteetara iritsi naiz, hitz hauen inspirazio izan direnak. Gure lehengusina trikitilari, organista, herri kazetari... eta oraindik adin txikikoak izan arren hamaika lanetan aritzen direnak. Joan den martxoaren 19an Etxalar izena Azpeitian hainbat lagunei aipatu eta seguraski baten batek Euskal Herriko mapan gure herri xarmangarri hau bilatzeko bidea eman zuten lehengusina trikitilari gazteak. Aupa Irune eta Itsaso, zuek ere ez galdu duzuen bixitasun eta indar guzti hori!

Hauxe bai Berekoetxean Santa Krutzetan juntatzen diren Elizagoien lehengusu lehengusinen errepaso polita. Erran bezala Txinan ere Etxalar izena ezagutara emateko prest gaudenak.

Zonaldeko
politikoak eta
enplegua

Mikel IBARROLA
Leurtza Abentura

Krisi garai hauetan (eta gelditzen dena), nik



Bota bertsoa

Aitzol EIZMENDI (Leitzako bertso eskola) • Doinua: Naufragoarena

Korrika: Maitatu, ikasi, ari... euskalakari

Bi urtetik ohi da errepika euskarari alde betez karrika jendea ondo pasatzeko prest ezin da falta musika (bis) Egunkariko kronika tartean da politika galduaz bere logika nahiz ta guk denok parte hartzeko motiboak dauden hamaika sarritan oinez ingo bagenu sobran legoke korrika (bis).

Trebiñotikan Donostiara dena da festa, dena algarra bide luzean zehar korrika gai izango ote al gara? (bis) Testiguak ze zirrara! ezin ezerkin konpara hizkuntzarentzat bultzada hainbeste jende egiten duna ezin bait dute ezaba behar bezala zaintzen badugu ez da galduko euskara. (bis).

bezala lanproiektu bat diseinatu duen enprendedoreei lruñeako mandatariek hitz onak eta batzuetan dirulaguntza dexente bat oparitzen digute. Zailena lortu ondoren herrira bueltatu eta udaletxeari dena presentatu behar diozu. Zonaldea maite duzu eta autoenplegua eta lanpostu batzuk sortzea da zure helburua.

2008ko abenduan enpresa sortzen dut, ingurugiro-turismo zerbitzuak landu nahi ditut kirol ekintzak naturan medioz Leurtzako urtegietan. Familiar baten borda alokatu eta txukundu. Urrozko eta Beintza Labaiengo udaletxei proiektua sartu eta baimenak eskatu nituen.

Proiektuan nik eskaini nahi ditut ekintzak aurkezten ditut eta baita bi udaletxeek diru sarrerak lortzeko ideia batzuk ere (nik debalde eramanez nuen). Bertizko Partzuergo Turistikoak bere babes-eskutzita ematen dit zonalderako zerbitzu ona de-

la baloratu ondoren.

2009ko azaroan (10 hilabete beranduago) Urrotzko alkateak (independiente) eta Beintza Labaiengo alkateak (UPNkoa) ezetz erantzuten didate argudio honekin (erderaz erantzun zidaten bezala idazten dut): *“las actividades, dada la afluencia de personas del espacio, pueden interferir en el desenvolvimiento que normalmente viene haciéndose por el público en general que es el objetivo fundamental recreativo de ese espacio”*. Hau da, nik bizikletaren bat alokatzen badut, bere bizikletarekin dagoen bertze bati...edo eskolarrekin bisita gidatu bat egitera Leurtzara hurbiltzen baina han daudenei traba egiten diet. Honek, turismoa ezeztatzen du. Zer egiten dute bi udaletxe hauek Bertizko Turismo Partzuergoan orduan?

Erran behar dut, “Leurtzako erabilera eta gestio plangintzan” arduratzen duten helbu-

ru hori ez da inon agertzen, alderantziz ingurugiro ekintzak egitera gonbidatzen du, horretarako errekurtsio ona dela erraten.

Iaz eta aurten ere, bai Bertizko Partzuergo Turistikoak, bai Orbela erakundeek aktibitateak eskaintzen dituzte Leurtzan eta nik ezin dut. Bi entitate horiek eramaten dituzten bezeroek ez dute traba egiten han pasaiatzera joaten direnei? Nere bezeroek zergatik bai?

Partziala eta legez aurkakoa ikusten duen abokatu bat bilatzen ari naiz kasu ikasteko eta egokiak iruditzen diren ekintza legalak aurrera eramateko bi udaletxeen kontra.

Alkate batek nahi duena egin badezake, maiatzako hauteskundeetan Urrozko eta Beintza Labaiengo biztanleei, bere herriarentzat inkapazitateagatik dituzten errekurtsioak lantzen ez duen personari botoa ez emateko animatzea gelditzen zaio bakarrik.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.net

Posta:

Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR

Tel.:

948 63 54 58

Faxa:

948 63 54 57

Akitzeko, bai Urrozko edota Beintza Labaien-go nahi duen pertsonari proiektua eta udal-letxeen erantzuna erakutsiko dizkiot, dena idatzita baitago.

Igantziko apaizari karta irekia

Joxean ORTEGA URRUTIA

Igantziko apaiza agurgarria:

Igantziko biztanle bat naiz eta gure etxeko postontzian bota duzun idazkiari buruz galdera batzuk badituz:

- Igantziko parrokia (eliza, etxea eta lurrak), Igantziko herriarena al da?, ala Artzapezpikuak Jabetza Erregistroan berea bezala erregistratu du?

- Azken hau egia bada, hau da Artzapezpikuaren ondarea bada, nolatan erraten ahal duzu, "lehenengo herritarrek

utzi diguten ondarea zaindu behar dugula"? Nori utzi? Igantziko herriari edota Erromako Elizari?

- Eta Igantziko parrokia, Artzapezpikuarena bada, jakiten ahal dugu Elizak zenbat diru jarriko du berea den ondarea kontserbatzeko? Edo dena herritarrok ordaindu behar dugu?

- Eta azken hau hala bazen, ez zen lojiko izan orduan, Igantziko parrokia Igantziko herriarena izatea? Azken finean, parrokia herriak berak sortua, egina, moldatuta eta babestua izan da, hasieratik gaurdaino.

- Eta 12.000 euro horiek "gure" organoan gastatu beharrean, zergaitik ez gosez hiltzen diren pertsonentzat erabili?

- Igantziko parrokia, legalki, Igantziko herriarena bada, aurreko galderak kontutan ez hartzeko eskatzen dizut.

Zure erantzunaren zain, errespetu osoz.

Doneztebetik azalpena

Francisco Jose EZKURRA

Behin eta berriz aditzen ari gara Bar Titi-Anaiak ostatua Jubilatuaeren Etxeko ostatuaeren itxieran nahastua dagoela eta afera horretan inolako zerikusirik ez daukagula adierazi nahi dugu. Egoera honen arduradunei kontua behin betirako argitzea exijitzen diegu, bertzela, beti bezala, gu garelako kaltetuenak.

Etxalar aurrera begira

Patxi IRIARRI

Natura berak, mendeetako maitasuna agertuz, erakusten digu, inork aizkora erabili gabe, urte luzeetan bizirik iraun duen zuhaitz zaharra botatzen duela

haize bolada indartsuak. Naturaren legea izanik, basoen onerako delakoan gaude. Antzeko zerbitu gertatu da Etxalarren.

Azken urte hauetan Euskal Herrian bizi dugun egoerak gaintu egin du Herri Taldearen aroa. Bertze urratsak emateko garai berriak bertan ditugu. Etxalar-ko etorkizunak, aberzale eta ezkertiar guztien borondatea eta indarra agertzeko aukera eskaintzen digu. Denak dituzte beharrezko eta gainera sinetsita gaude el-

kartzan gaituena bereizten gaituena baino aisa gehiago dela.

Aurtengo maiatzaren 22, Etxalartarrak aukera zabala izanen dute, norbaitzuk diotenez, lau talde izanen bait dira hauteskundeetako leian. Ezker Abertzaleak azkeneko lau urtetako lanari jarraipena eman nahi dio eta jendearen eskuetan jarriko da bozka egunean. Bitartean gure konpromiso irmoa adierazten dugu Etxalar-ko herritarren aldeko lanean jarraituko dugula erranez.

TTIPI-TTAPA ZURE LAGUNTZA BEHAR DU

Zure laguntza eskertzeko
DOKUMENTU-POLTSA
bat izanen duzu opari

Can proiektu zenbakia
15.996

Erregistro, identifikazio, inbenta eta mugakortasun konpromezuak

TTIPI-TTAPA

PSIKOBIDE PSIKOLOGIA ZENTRUA

TERAPIAK: Bakarkakoa - Bikote artekoa - Familiarra
HELDUAK - HAURRAK - NERABEAK:

Era guztietako arazoak eta gaixotasunak tratatzen ditugu
IKASKETA TEKNIKAK eskolan arazoak dituzten haurrentzat
GURASOENTZAKO LAGUNTZA TALDEAK: Talde terapiak

Lehenengo kontsulta dohainik, deitu eta informa zaitez!!

Kolon Pasealekua, 64 behea • 20301 - IRUN
Tel. 689 639 543 • www.psiikobide.com



Prentsatik bildutakoak



«Gazteen artean urduritasuna somatu da bai... Krisi kontuekin jokalarik kopurua murrizten ari da eta normala da (...) Hori da enpresen politika: pilotari gazteak hartu, ateratzen badira ondo, eta bestela, hiru edo lau urtera, etxera. Guk debutatu genuenetik asko aldatu dira gauzak. Orduan debutatzea zaila zen, baina nahiz eta Bigarren Mailan egon, ibilbide luzeak ziren».

Asier OLAIZOLA
Goizuetako pilotaria
BERRIA, 2011.03.30

«Euskaraz bizitzen saiatu behar dugu; kalean euskara gehiago entzun behar da... Adibidez, taberna batera sartzen diren bezeroen %20k euskaraz hitz egiten badute, tabernariak jarrera aldatuko du, eta hizkuntzagatik zerbait eginen du. Edo udal-etxera joaten bagara, beti eskatzen dugu ele bitan egitea, euskaraz bakarrik eginda ez dutelako kasurik eginen».

Alizia IRIBARREN
Erriberan Euskaraz elkarteko kide elizondarra
BERRIA, 2011.04.05

11 galdera labur

Elbeteko alkatea izateaz aparte, nor da Pedro Goienetxe?

Nire emazte eta haurrekin bizi naiz eta familiako gizon bat.

Zein afizio dituzu?

Pilotan aritzen gara pixka bat, futbolean ere bai... Orokorrean kirola.

Lau urtez alkaterik gabe egon da herria...

Gazteak juntatu eta denek alkatea behar zela erraten zuten. Azkenean talde bat egin genuen eta orain, bi urtetarako niri tokatu zait.

Nolatan aurkeztu zinen alkate izateko?

Ni ez nintzen presentatu. Denen artean rotatuz gan behar genuela gelditu ginen eta ni nintzen denetarik zaharrena eta niri tokatu zait.

Zure eta lantaldearen helburu nagusia zein izanen da bi urte hauetan?

Lehenbizikoa pixka bat egunean jartzea.

Zer somatu duzu faltan Elbeten?

Oraindik hartu berria dugu kargua eta zein behar

diren ikusten ari gara. Lehenbiziko urtea horretan joanen zaigu.

Elbete Elizondoko auzo bezala ikusten duenari, zer erranen zenioke?

Ezetz, Elbete herri bat dela. Igual bertze jendeak horrela pentsatuko du, baina guk, beti hemen bizi izan garenok, badakigu herri bat dela.

Zer iruditzen zaizkizu onartu berri diren Ordenantzak?

Oraindik ez gaude eguneratuak...

Bestak, inauteriak ala Baztandarrren Biltzarra, zein nahia-go?

Bakoitzak badu bere enkantoa eta niri hirurak gustatzen zaizkit.

Haurrekin egiteko planik ederrena zein da?

Denetarik. Mendira joan, plazara joan jostatzera, noizbehinka Iruñera joan...

Amets bat?

Orainxe berean, ez dakit ba...



Pedro GOIENETXE → Elbeteko alkatea

JATETXEA BENTA OKALARRE

- Jantoki handia dauka eta terraza panoramiko ederra Bidasoak haitzaren bitartekoa ikusgarritzat gozatzeko.
- Zure eskontza ospetzeko toki ezin hobea
- Kontuaitza gure menuak

Zatuz naturaren erdian zure eskontza ospetzerako

948 631 658 | 650 981 950
BARDIN - BERA | Ibardein parson, 11km
www.bentaokalarre.com
info@bentaokalarre.com

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
© 948 630 763 - Aitzate, 17 - BERA

okana
HARATEGIA / URDAITEGIA
Jose Luis & Irujo
Tfn/Fax: 948 630 018 | Karitonberri 12 - BERA

José I. Gonzalez Enguita
pinturak
barrukoak eta fatxadak
tel. 666 235 466

Karsuk®
Muebles de cocina
Meubles de cuisine
Sukaldeko aitziariak

Karlos Pombar Sainz
C/Sara 1 bajo local C
31780 Bera (Na)
T/F +34 948 625 430
M +34 699 884 084
info@karsuk.eu
www.karsuk.eu

KULTURA → 2011KO SANESTEBANAK

Bestetako egitarauaren azal lehiaketa zabaldu du Kultur Batzordeak

Apirilaren 29a baino lehen aurkeztu beharko dira

rra emanen du, 300 eurokoa. Lehiaketa hutsik ere gelditzen ahal da. Sarituak izan ez diren lanak bestetako programan erabiltzeko eskubidea ere izanen du Udalak.

TTIPI-TTAPA

Bestetako egitarauaren azalerako lehiaketa-ren deialdia egin du Kultur Batzordeak. Nahi duen guztiak parte hartu ahal izanen du, eta nahi hainbertze lan aurkeztu. Azalak besta giroa islatuko du eta beti ere *Sanesteban Bestak 2011* testua agertu beharko da. Formatuari dagokionez, argazkia edo kartela kolorezkoa izanen da, papelean aurkeztuko da, eta bertikala izanen da, 18x24 zentimetrokoa. Argazkia edo diseinua ez da inongo euskarriren gainean paratuko. Ahal den neurrian aurkeztutako lanak CD-an eranstea eskertuko da.

Lanek jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan beharko dute eta apirilaren 29a baino lehen aurkeztu beharko dira Herriko Etxean. Epaimahaia Kultur Batzordeak izendatuko du eta sari baka-

Musika Eskolako aurreinskripzioa

Isidoro Fagoaga Musika Eskolan aurrematrikulazioa egiteko epeak zabalik daude. Barruko ikasleen kasuan, apirilaren 12an bukatzeko zen apuntatzeko epea, eta 3-6 urte arteko haurrentzat apirilaren 20ra arte luzatuko da. Kanpoko ikasleek, berriz, maiatzaren 2tik 13ra egin beharko dute aurrematrikula. Idazkaritzako ordu-tegian egin behar da, 15:30etik 19:00etara.

1943koen kinto besta

1943an jaiotakoak afaltzera bilduko dira apirilaren 30ean, Zubi Ondon, 21:00etan. Izena emateko 948 625472ra (Zubi-Ondo) edo 678 947828ra (Antonio) deitu beharko dute apirilaren 28rako.



UTZITAKO ARGAZKIA

Estresik Gabeko Eguna Toki Ona institutuan

Estresik Gabeko Eguna egin zuten Toki Ona Institutuan martxoaren 29an. Hainbat saio egin zituzten: barreterapia, umore tailerra, taichi, yoga, taichi-clown, karaokea, Wii dantza... Txirrinaren partez, ikasle batzuk musika jotzen ibili ziren eta txokolatetatek endorfinaren gisako efektuak dituzenez, 50 litro txokolate-esne banatu ziren.



UTZITAKO ARGAZKIA

Gazte batek guardia zibilengandik jasotako tratua salatu du Udalak

Herriko gazte batek guardia zibilengandik jasandako tratua bortitza salatu zuen Udalak ahobatez martxoaren 24an egindako agerraldian. Alkateak aipatu zuenez, «gazteriak pairatzen dituen mehatxu, presio eta jazarpenak ugaritzen ari dira, baina oraingoa bezain larrik ez da gertatu edo ez da salatu behinik behin». Gazteak salaketa ere jarria du guardia zibilen kontra epaitegian. Horren arabera, otsailaren 3an, 18:45 aldera etxera bizikletaz zihoala guardia zibilaren kontrola ikusi zuen kuartel pareko errotondan. Etxeko portalean sartu zenean, guardia zibil batek kaputxatik heldu eta arrastaka atera zuen portaletik. Behin kanpoan, eskuak pareta-aren kontra jarri zuten eta sakelak, kartela, motxila miatu zizkieten. Baina Nortasun Agiria aztertzen ari zirela, Berako kuarteleko bi guardia zibil hurbildu eta gazteak Berako kontzentrazioetan parte hartzen zuela erran zieten bertze agenteei. Momentu horretan, portaleko atea irekitzea agindu eta barnera sartu zuten gaztea, ondoan bi guardia zibil, eskaileretan bertze bat eta atearen kanpoaldean bertzea, inor etxean sar ez zedin. Agenteetako batek metraileta luzearekin apuntatu bitartean, bertzeak laburrekin mehatxatu zuela salatu du gazteak eta erabat biluztu eta metraileta puntarekin gorputz osoan jo zutela. Hala, guardia zibilen indarkeria guztiak desagerrarazi behar direla eskatu du Udalak ahobatez onartutako mozioan.



Txistulari gazteak fin

Apirilaren 2an Hernanin egin zen Txistulari Gazteen VII. Txapelketan argazkiko lau txistulari hauek hartu zuten parte. *Bortzirriak* izenarekin aurkeztu ziren Berako Ibon Irastorza (txistua), Oier Larretxea (txistua) eta Asier Osés (silbotea) eta Etxalarko Andoni Iribarren (atabala). Gazteenak ziren eta txalo zaparrada eta diploma jaso zituzten.



LESAKA

GIZARTEA → EGUN OSOKO OSPAKIZUNA

Ekitaldiz betetako Gazte Eguna ospatuko da apirilaren 16an

«Gaztik geldirik
herria hilik!
Mugi hadi
gazte!»
lelopean

Eguna behar bezala borobiltzeko, 21:00etan hasita kontzertuak izanen dira Arma tiro punk, Askatu, Zea Mays, Ze Esatek! eta Bad Sound System taldeekin.

Aitor AROTZENA

Urtero bezala, Lesakako Gazte Asanbladak aurten ere Gazte Eguna antolatu du. Egun osoko egitaraua antolatu dute apirilaren 16an, «gazteria elkartzeko eta gure beharrak aldarrikatzeko helburuarekin». Lehengo urteko dinamika berdinarekin segituz, herriko gazteak piztu eta mugitzeko leloarekin heldu dira: *Gaztik geldirik, herria hilik! Mugi hadi gazte!*

Larunbat osoan zehar ekintza ezberdinak egingen dira. 09:00etan Kalejira egingen da. 10:00etan: Gosaria. 11:00etan: Gazteztai-bada. 12:00etan Paella txapelketa egingen da eta ondotik, 14:00 aldera bazkaria egingen da. Txartelak 5 eurotan erosten ahal dira. Ondotik Gazte Jokuak egingen dira. 19:00etan poitea egingen da "Patxaranga" taldearekin.

Udaberriko Azoka igandean

Lesakako Zerbitzuen Elkartek udalaren laguntzaz Udaberriko Azoka antolatu du apirilaren 17an. Igande goizeko 10:00etatik arratsaldeko 19:00etara zabalik izanen dira frontoiko atek eta euro bateko sarreraren truke, prezio horretako kontsumizioa hartu ahal izanen da Haizea kafetegian eta Atxaspi eta Kattu ostatuetan. Aurtengoan, 12 komertzio hartu dute parte Udaberriko Azokan beraien produktuak eskainiz: Intzuri optika, Oreka dietetika-nutrizioa, Kattagorria mertzeria-lentzeria, Germa Igarzabal estetika, Oninart jantzi boutiquea, Bixkiak arropadenda, Panpina haur arropadenda, Telletxea argazkigintza, Ordoki altzariak, Txinelka zapata-denda, Ortzadar arropadenda eta Maite Igarzabal ileapaindegia.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Bortzirietako V. Minusbaliotasun jardunaldi arrakastatsuak

Bortzirietako minusbaliotasun jardunaldiak antolatu dituzte bosgarren urtez Lesakako Osasun Etxeak eta Bortzirietako Jendarte Zerbitzuetako Mankomunitateak, Anfas eta ASPACE erakundeekin laguntzarekin. Jardunaldi hauek urteroko hitzordu bihurtu dira, eta ezintasunen bat duten eskualdeko haurren kontrolaren egoera aztertzen da. Martxoaren 31n egindakoan, *Heziketa eta Minusbaliotasuna* gaia aukeratu zuten. Nafarroako Heziketa Bereziko Baliabideen Zentruko Elena Arrietak haurrentako fisioterapiak egin diren jardueren inguruan ere solastu zuen. Heldu den urtean, 10 urte beteko dira Bortzirietan arreta goiztiarra hasi zela eta parte-hartze handiagoko jardunaldiak egin nahi dituzte.

Sanferminetako kartel eta azal lehiaketak

2011ko Sanferminetako programaren azala eta bestak iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketa deitu du, Lesakan jaio edota bertan bizi direnentzat. Lanak udal bulegoetan aurkezteko epea apirilaren 29ko 13:00etan akautuko da. Aurten, kartelaren neurria aldaketa izan da eta 420x594 mmko lanak aurkeztu beharko dira. Programako azalaren neurria A4 izanen da. Batean nahiz bertzean *Lesaka*. 2011ko *Sanferminak* testua paratu beharko

da derrigorrez. Kartel nahiz azal lehiaketen irabazleek 500 euroko saria eramanen dute. Kartela argitaratu egingen da eta azaleko lehen saria programaren aitzineko azalean joanen da.

Bertze aldetik, gibeleko azala aukeratzeko, herriko ikastetxeetan ikasten ari diren 6 urte-tik 12 urte bitarteko haurrei zuzendutako portada lehiaketa ere deitu du Udalak. Hauen lanak ere apirilaren 29ra-ko aurkeztu beharko dira. Lehenbiziko saria, herriko dendetan eskolako materiala erosteko 300 euroko balioa duen taloia izanen da.

Musika eskolaren kontzertua ortziralean

Musika eskolako ikasleek kontzertua eskainiko dute apirilaren 15ean, ortzirale arratsaldeko 17:00etan udalarekin. Musika Eskolak antolatu du, Udalaren laguntzaz.

Suhiltzaile boluntario izateko deialdia

Herriko suhiltzaile boluntarioen taldeak kide berriak behar dituela eta, kide izan nahi duenak hilaren 29a baino lehen eman behar du zena udal bulegoetan.



UDALA → 2011KO DIRU SARRERAK ETA IRTEERAK

Bagoleko bordako bidea moldatzea izanen da Udalaren inbertsio nagusia

801.498 euroko aurrekontua izanen du Udalak 2011n

Irune eta Itsaso

2011ko aurrekontua onartu du Udalak: 801.498 eurokoa, hain zuzen. Inbertsio handienak ere zehaztu ditu: Bagoleko Bordako bidea moldatzeko bideratuko da zatirik haundiena, lan hauek 152.755 euro kostako baitira.

Orain arte errentan izan diren telebista errepikagailuaren tresneria erosi eginen da aurten,

7.000 euro inbertituz. Horiekin batera, Tximista erreka dragatuko da Errotatik hasi eta Gaztelu pareraino eta honetan 6.600 euro gastatuko dira. Oihan lanek 18.000 euroko gastua izanen dute. Aldi berean, Urritzokietako bidean lehendik egindako eskoileretatik bat aurten aurrekontuetan sartuko da 12.547 euroko gastuarekin. Gainerako aurrekontua bertze hainbat inbertsiotan erabiliko du Udalak.

Turismo bulegorako langilea

Aste Santurako langilea behar da Kultur



ARGAZKIA: LANDAGAIN ESKOLA

Zuhaitzaren Eguna

Aurten inoiz baino beranduago suertatu den arren, Landagain eskolako haur eta irakasleak, gurasoen laguntzarekin zuhaitzak landatzera joan ziren martxoaren 25ean eguraldi ezin hobearrekin. Haur Hezkuntzakoak autoz joan ziren Olako bordaraino eta lehen ziklotik goitikoak oinez. Hortik denak elkarrekin Bagata aldean gereziondoak, lizarrak eta haritzak landatu zituzten. Indarrak hartzeko Udalak eskainitako luntxa izan zuten. Lana akautu ondotik mendian bertan bazkaldu eta Haur Hezkuntzakoak autoetan eta gainerakoak oinez bueltatu ziren eskolara.

Etxean turismo bulegoan egoteko. 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara lan egiteko izanen da. Bidali curriculumak bertiz@consorciobertiz.org-era edo deitu 948 592323ra.

Hitzaldia eta zinema Kultur Etxean

Ortziral honetan, apirilak 15, 19:30ean, hitzaldia izanen da Kultur Etxean *Nafarroako konkistaren* inguruan. Hizlaria Patxi Abasolo izanen

da, 1512-2012 Nafarroa Bizirik elkartekoa.

Bertzalde, apirilaren 20an, *Karramarro uhar-tea* filma ikusgai izanen da Kultur Etxean, 17:00etan hasita. Dohainik izanen da.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Herri programa landuko du Ezker Abertzaleak

Bere jatorria 1978an kokatu bazuen ere, martxoaren 12an egin zuten bere historian lehendabiziko agerraldi publikoa Ezker Abertzaleak eta herri programa lantzen hasi direla jakinarazi zuen.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Herri Taldeak prest du alkate-zinegotzien zerrenda

«1978az geroztik pilotutako eskarmentu eta esperientziari probetxurik handiena ateratzeko intentzioarekin» presentatzen dira. Alkategai Miguel M^a Irigoien da, lehendik ere alkate izana 18 urtez.

elika
Dietetika eta elikadura

- Albulantzia dietetiko eta nutrizionala
- Dieta personalizatua
- Gintza berrizantzeko dietak
- Elkarrekin

Itxar Andueza Larra
Itza, 6 behe - BERA - Tel. 948 631 283 - elikabera@hotmail.com

JAKONE - GOZOTEKIA

Alteak 19 - BERA - 948020788

F. LANCHAS

Akudialorea eta berriztatzailea
Parket eta parket flotatzaila
Jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 736 M: 607 406 781

IGANTZI

OSPAKIZUNAK → APIRILAREN 15ETIK 17RA

Ortziraleko bertso afariarekin abiatuko dira Udaberriko bestak

Udaberriko bestak asteburuan ospatuko dira

ERAKUSKETA

Asteburu osoan Santiago Jorge margolariaren erakusketa izanen da ikusgai Baratzondon.

TTIPI-TTAPA

Euskara Batzordeak antolatutako Udaberriko bestak asteburu honetan izanen dira, apirilaren 15etik 17ra.

IGANDEKO AZOKA

Azokan biltzen den dirua dantza taldearentzako izanen da.

ORTZIRALA

Ortziralean, 21:00etan, bertso afaria izanen da Biltokin Julen Zelaia eta Ander Fuentes *Itturri* bertsolariekin. Biltokiko bazkideek 25 euro eta gainerakoek 27 euro ordaindu beharko dute.

17:30ean eskolako haurren emanaldia izanen da eskolan. Bi orduz, ikasleek egindako eskolako logotipoen erakusketa, 2. zikloko ikasleen argazki erakusketa, 1. mailako ikasleek egindako dinosauroen erakusketa eta 3. zikloko ikasleen bertso ipuin antzeztuak izanen dira. Txanogorritxo eta Martixio asmatzailea bertso ipuinak antzeztuko dituzte.

LARUNBATA

Larunbatean, 10:00etan mendi irteera izanen da haur eta gurasoentzako. Bakoitzak bere gosaria eraman beharko du. Plazatik atera eta eguerdirako itzuli dira.

IGANDEA

Igandean, 10:30ean karrika buelta egingen da

Lau zati ditu Irisarriko turismo eta aisialdirako gunearen proiektuak



Irisarri jauregiaren inguruan Igantzi Harrobiak egin nahi duen turismo eta aisialdirako gunearen egitasmoari buruzko xehetasun gehiago jakin ditu TTIPI-TTAPAK.

Horren arabera, Harrobiak lau eremutan banatua du proposamena. Alde batetik, Bekoborda eta ondoan dagoen nekazaritzako eta abeltzaintzako nabean, indoor jarduerak egiteko zentroa eta taldeentzako alojamenduak eraikitzea da asmoa, bere aparkalekuarekin.

Bigarren eremuak Irisarri jauregia eta ondoko erakinak hartuko lituzke. Hemen, apartamentu-hotela eta enpresa eta familientzako jardue-

rak eskainiko lituzkete eta horretarako, jauregia zaharbertituko luke Harrobiak –baliteke haunditu behar izatea– eta turismo eta aisialdi jardueretarako eraikin tiki bat egin ere bai. Horrez gain, sakabanatutako zortzi alojamendu ere egingen lirateke, baita 40 ibilgailuentzat aparkalekua egokitu ere.

Hirugarren zatia lur eremuaren hegoaldekoa izanen litzateke. Sakabanatutako hotel-apartamentua egin nahi du Harrobiak hemen, eta bertzelako hainbat jarduera ere bai.

Laugarren eremuak, berriz, nekazaritza eta abeltzaintzako bertze nabearen ingurua hartuko luke.

herriko txistulariekin. 11:00etatik 19:00etara azoka izanen da frontoian eta aurtengo helburua herriko dantza taldearentzako dirua biltzea izanen da. 12:00etan herriko dan-

tzarien saioa izanen da. Bazkalondoan, 16:30 aldera, herriko trikitilariet saioa eskainiko dute eta 17:00etan opilak banatuko dira.

Aipatzekoa da asteburu osoan Santiago

Jorge margolariaren erakusketa izanen dela ikusgai Baratzondon, larunbatean 19:00etatik 21:30 arte eta igandean 11:00etatik 13:00 arte eta 17:00etatik 19:00 arte.

HEZKUNTZA → BILERA DEIALDIA

Pelle-Ttiki Haur Eskolaren inguruko bilera informatiboa izanen da larunbat honetan

Haur Eskolako matrikulazio kanpainaren berri emanen da

Nerea ALTZURI

Joan den otsailaren 13an, egun ederra pasatu genuen Pelle-Ttiki Haur Eskolaren aldeko egunean. Honen berri eman genizuen eta bulkadatxo bat eman genion denon artean. Haur Eskola, duela sei urte martxan jarri zen Dindaia fundazioak kudeatu eta Udala eta gurasoen laguntzarekin.

Herri ttikian bizi gara eta ekonomikoki guraso eta Udalari gastuak arintze aldera, Haur Eskola mantentzeko lanean segitzen dute gurasoek. Azken boladan hainbat ekimen egin dira: material salmenta,

Pelle-Ttiki eguna...

Hurrengo urterako matrikulazio kanpaina abian da eta horren inguruko xehetasunak emateko, larunbat honetan, hilak 16, eta 11:00etan, bilera egingen da Pelle-Ttikin bertan. Eskolaren egunerokotasunaren berri jakin nahi duen guztiak, guraso, amatxi-atautxi, osaba-izeba eta zainzaile guztiak gonbidatuak daude.

María Jesus medikuari

Azken sei urteotan herriko medikua izan den María Jesusi eskerrak eman nahi dizkiogu herrian egin duen lanagatik eta herritarrei eskainitako tratu hurbil eta onagatik. Suerterik hoberena opa dizugu María Jesusi.



ARGAZKIA: KOLDOBIKE GOROSTIZA

Aski goiz atseginak pasatzen dituzte Haur Eskolara joaten diren neska-mutikoeak.



ARGAZKIA: MARTIN LEGARRA

Bortzak Bat kooperatiba sasoian

Joan den apirilaren lehenean, Bortzak Bat kooperatibako bazkideek kontu emate bilera eta afaria egin zuten Zahar Txokon. Manolo Lantz kudeatzaile ekonomikoaren arduradunak iazko kontuen emaitzak eman zituen eta kooperatibak azken urteetako mailari eutsi diola ondorioztatu zen. Bertzalde, batzordea edo junta osatuko duten bazkideen arduradunak aukeratu ziren eta hauek izanen dira datozen lau urteetan ardura hori izanen dutenak: herriko A taldearen ordezkaria Justo Larralde; herriko B taldearen ordezkaria Rosa Mari Iribarren; Eguzkialdean A taldearen arduraduna Timoteo Iguzkiaguire eta auzo berean, B taldearena, Juan Miguel Almandoz; Bordalarrea auzoa Agustin Etxebestek ordezkatu du; Azkilarreako juntakidea Jose Luis Goizueta izanen da; eta Aientsa auzoko arduraduna, berriz, Pantaleon Errandonea.

ZOANSA
SEAT
VW
HYUNDAI
Audi
MARKA GUZTIEK KONPONKETA
Banarta, 2 - Alkaiaga Industrialdea
LESAKA (sarrera Beratik)
Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

EDARIAS
MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. Fax: 948 63 10 27

aterpe
aldegueko jantzerako lekua
T. 948 634 179
ARANTZA
www.arantza.net

BORTZIRIAK

HIRI-HONDAKINAK → ZABOR ORGANIKOA BERRESKURTZEN

Konposta egiteko 145 ontzi gehiago banatu ditu Mankomunitateak

Bortzirietan, Malerrekan eta Baztanen banatu dira

TIPI-TTAPA

Hedatzen ari da etxeko konpostajea Bortzirietan. Datuek hala diote. 2008an egin zuen Hiri Hondakinen Mankomunitateak etxeko konposta indartzeko lehenbiziko kanpaina Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesakan eta arrakasta ikusita 2009an bigarrena egin zuen. Guztira 181 familia eta bi eskolek hartu dute parte.

Baina orain gehiago ere izanen dira. Eskerra aunitz jaso direnez, Mankomunitateak, Nafarroako Partzuergoarekin, hirugarren fasean 110 konpostontzi gehiago banatu baititu. Bortzirietako bizilagunen artean banatu den kopuru horrez gain, Malerrekako 18 laguni eta Baztango 17ri banatu zaizkie konpos-



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

145 lagunek euren konpostagailuak hartu zituzten Bortzirietako Mankomunitateak Alkaiagan daukan nabean.

tontziak. Martxoaren 29an egin zen Beran banaketa.

42.000 KILO KONPOST EGIN ZIREN IAZ BORTZIRIETAN

Patxiku Irisarri Bortzirietako Hiri-Hondakinen Mankomunitateko presidenteak aipatu zuenez, «iaz 42.000 kilo konpost egin zen Bortzirietako etxeetan eta hori kopuru adie-

DATUA

42.000

KILO konpost egin zen joan den urtean Bortzirietako etxeetan.

razgarria da». Konpost hori, gainera, kalitate

haundikoa izan da eta bi bortziritarrek egin-dako konposta Nafarroako hamar onenen artean izan zen joan den urtean.

PLASTIKOETATIK EGURREZKOETARA

Orain artean plastikozko konpostatzaileak banatu badira ere, aurtengoa egurrez egindakoa da. Gainera, eragorrek ez du

tratamendu kimikorik jaso eta Kanadatik espreski ekarria da. 400 litroko edukiera hartzen duen konpostagailuarekin batera, konposta nahasteko tresna bat eta bederatzita litroko edukiera duen sukalderrako zaborrontzi ttikia banatu zituzten Mankomunitateak. Kultur Etxean konpostatzailea nora erabili, zer gai erabiltzen ahal diren, nola nahasi behar den eta gisako ikasgaiak eskaini zituzten Nafarroako Hondakinen Partzuergoko teknikariek eta Berako Kultur Etxean zegoen jendearen kezka eta zalantzei erantzun zieten. Gero, Mankomunitateak Alkaiagan duen nabera joan ziren konpostontziak hartzera.

Sortzen den hondakinen kopurua murrizteko lanean ari da azken urteotan Mankomunitatea, etxeko konposta bultzatzen. Izan ere, etxean sortzen den hondakinen %40-45 organikoa da.

SUKALDEKO OLIOARENTZAT EDUKIONTZI

- Gaikako bilketa zerbitzua zabaldu eta hobetzeko, erabiltako sukaldeko olio biltzeko edukiontzi berriak jarmiki ditugu kalean.
- **Kokapena:** Elizondoko Salvador eta Alduides kaleetan. Inurita: Berueta-Ziga errepidean. Arizkun: Herriko plazan. Doneztebe: Merkabako plazan eta Aparan industrialdean. Sunbilla: Ramon Latasa plazan. Harbaste: Frontoian-trinketean. Bera: Agerra auzoan, Iturlandeta auzoan eta Ezdegara kalean (institutoa). Lesaka: Eitzeta kalean (Alprox) eta Arretxea kalea, 6. Igantzi: Aparkalekua-bus geltokian. Arantza: Herri sarrerako aparkalekuan. Etxalar: Herri sarrerako aparkalekuan.

BERRIA!

BAZTAN, MALERREKA eta BORTZIRIAK

- Sukaldeko olio bakarrik utzi. EZ kotxekoa, ezin baidira nahastu!
- Olio ondo itxitako ontzietan utzi behar da edukiontzi barruan.
- Olio hau biodiesel bihurtuko da birziklatu ondoren.

ECOGRAS

HOSTALARITZA ZERBITZUA

Informazioa

902 366 251

www.ecogras.es

Lehen eta ondoren kudeatzen
bereziki: E2104004
Hondakinen erabileraren gaitasunak
kudeatzen bereziki: E21131105

TURISMOA → TTIPI-TTAPAREN ESKUTIK

Kalean da Baztan, Bidasoa eta Xaretako aisialdi eta gastronomia gida

Lehen aldiz
aisialdiri
buruzko
informazioa
bildu da

TTIPI-TTAPA

2011ko Baztan, Bidasoa eta Xaretako Aisialdi eta Gastronomia Gida argitara eman berri du TTIPI-TTAPAK. Aitzineko urteetan Gastronomia Gida izan da, eta aurten go berritasuna aisialdiari buruzko informazioarena da. 42 orrialdetan 80 zerbitzuren informazioa ematen da, euskaraz, gaztelaniaz eta fran-

tsesez. Azken aldian aisialdiarako zerbitzuak handitu dira eskualdean eta horregatik sartu dira gida berri honetan. Eskualdera datozen bisitariarentzat informazio osatuagoa eta ikuspegi zabalagoa emateko helburuarekin.

Aisialdiari eta gastronomiari buruzko informazioaz gain, herriak eskaintzen dituen zerbitzuen informazioa aurkituko dugu. Farmaziak, supermerkatua, gasolindegia, turismo bulegoa, frontoia eta igerilekurik baden. Baita besta nagusiak noiz izaten diren, lo egiteko lekuak non aur-



Gidaren azala.

ki ditzakegun eta taxien zerrenda bat ere.

8.000 ale argitaratu dira. Gidan aipatzen diren lekuez gain, turismo bulegoetan ere banatu-

ko dira bisitarien esku-ragarri. Aitzineko urteetan udarako banatu izan da, baina aurtengoan As-te Santuan eskuratzeko modua izanen da.

GIZARTEA

Langabezia jeitsi egin da eta 1.198 langaberekin joan da martxoa

TTIPI-TTAPA

1.198 langabe zeuden martxo hondarrean Doneztebeko Enplegu Bulegoan izena emanak, otsailean baino 17 guttiago (%1,40 guttiago). Pixka bat jautsi baldin bada ere, azken urteetako langabe kopuru handiaren bueltan dago eskualdea. Martxoan 332 kontratu egin ziren Doneztebeko Bulegoaren bidez eta horietatik 45 izan ziren mugagabeak. 25 urtez goitiko gizasemeen artean beheiti egin zuen langabeziak (535etik 527ra) eta emakumeetan ere bai (551tik 542ra). 25 urtez beheitiko gizasemeetan 77tik 73ra jautsi zen eta emakumeetan 52tik 56ra igo.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN
948581959 | 948 637404

LEKUNBERRI
BERA | SAN JOSE
ELIZONDO | BAZTAN

LEITZA | 948 61 09 64 (SALAKO TELEFONOA)
LESACA | 948 62 75 77 (SALAKO TELEFONOA)
BETELU | 948 51 34 67 (SALAKO TELEFONOA)
DONEZTEBE | SAN PEDRO | 948 45 19 14 (SALAKO TELEFONOA)
ELIZONDO | BAZTANDARRA | 948 58 02 50 (SALAKO TELEFONOA)

| TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTI ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA
| LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

SUNBILLA

IKASTAROA → ARGAZKIGINTZA HASTAPENA

Argazki ikastaroa egingen da aurten bigarren aldiz maiatzean

Bertzalde, argazki erakusketa zabalduko da Aste Santuan kanpinean

TTIPI-TTAPA

Sortzez donostiarrak baina azken urte eta erdian Sunbillan bizi den Asier Fagoaga argazkilariak ikastaroa eskainiko du aurten ere herrian. Maiatzean izanen da, hilabeteko astelehen eta ortzegunetan. Maiatzaren 2an hasiko dira eta 26an akitu. Argazkiaren munduan sartzeko, hastapeneko saioak egingen dira.

Zortzi-hamar lagunendako ikastaroa izanen da, eta dagoeneko bortz apuntatuak badiren arren, oraindik eman daiteke izena, 685 753564ra deituta.

Aspaldidanik dabil argazkilaritzan Fagoaga. 2000an akitu zituen argazkilaritza ikasketak, eta geroztik hainbat lanetan ibili da: aldizkari eta liburu-erakusketarako argazkiak egiten, bataio, ezkontza edo jaunartze-erakusketarako erreportajeak egiten...

ERAKUSKETA

Ikastaroaren aitzine-tik, Aste Santuan inguruko eta Donostiako hainbat paisairen argazki erakusketa izanen da Ariztigain kanpinean. Erakusketa berezia izanen da, izan ere, norbaitek argazkiak ageritan tokira joan nahi baldin badu, ondoan mapa bat izanen du toki horretara nola joan daitekeen jakiteko.

Bataioak

Bi haur bataiatu ziren apirilaren 3an: Argia Agirre eta Iker Ibarra.



ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA

Giro ederrean Asteburu Kulturala

Ulibeltzak Elkarteak, Guraso Elkarteak, Antrotokiko gazteek eta Antzakaitz Kultur Taldeak antolatutako Asteburu Kulturala arrakastatsua izan da aurten ere. Ortziraleko arratsaldeko **haur joko**etan neska-mutiko aunitzek parte hartu zuen eta arratsaleko **mus txapelketan** 12 bikote aurkeztu ziren. Gregorio eta Estefani izan ziren txapel-dunak, Pattere eta Maribel gelditu ziren bigarren; Maxux eta Rakel hirugarren eta Joxe Martin eta Joxe Luis laugarren. Larunbat eguerdian **txitxipilota lehiaketa** jokatu zen, gastronomia eta umorea uztartzen dituen lehiaketa. Lau talde aurkeztu ziren lehiaketara eta Angel Mariezkurrena, Loli Gandara eta Ines Obregozok osatutako epaimahaiaren puntuazioak jaso ondotik, Pello Altzuri, Aitor Altzuri eta Imanol Apeztegiak irabazi zuten lehen saria, bonbon kaxa eta botila txanpaina. Bigarren saria *Gu geu* taldearentzat izan zen eta hauek Fonda ostatuan bortz kubata edo hamar kaña edo kalimotxo edateko aukera izan zuten. Hirugarren saria *Kaxkarrak* taldeak eskuratu zuen eta laugarrena *Attope* taldeak. Goiz eta arratsaldez haurrentako **puzgarriak** izan ziren eta giro ederrean ibili ziren ttikienak. Gaez, **txiste afaria** egin zen Guillermo Segurola txiste kontatzailearekin eta honetan 38 lagun apuntatu ziren. Igandeko ekitaldiekin borobildu zen egitaraua. **IV. Gazta Lehiaketa**n 14 gazta aurkeztu ziren eta Arkaitz Vicentek, Rakel Urtxegik, Juanjo Ibarra eta Mañoli Agirrek osatutako epaimahaiaren arabera, joan den urtean bezala, Migeleneko Josefina Jorajuriak aurkeztutako gazta izan zen onena eta 60 euroko saria eraman zuen. Bigarren saria (40 euro) Miguel Antzizarrek eskuratu zuen eta hirugarren sariko 20 euroak Primonekobordako gaztarentzat izan ziren. Aldi berean, **artisansu feria** ere ikusgai izan zen, tartean herriko taloak eta ogia txokolatearekin dastatzeko aukera ere bai. Zare eder baten zozketa ere egin zen eta hau Leonor Latasari (969 zenbakia) tokatu zitzaion. Ondotik, Ulibeltzak Elkartearen bazkaria egin zuten artisansu eta laguntzaileek eta arratsaldean herriko neska-mutikoen dantza saioarekin akitu zen Asteburu Kulturala.



BIRZIKLAPENA → BAZTAN, BORTZIRIAK, BERTIZARANA, MALERREKA ETA LEITZALDEKO DATUAK

Sukaldeko olioa birziklatzeko edukiontzia paratu zirenetik 7.500 litro bildu dira

Leitzaldean duela urtebete paratu ziren edukiontzia eta gainerakoetan otsailean

TTIPI-TTAPA

Erabilitako sukaldeko olioa birziklatzeko helburuarekin Baztan, Bertizarana, Bortziriak eta Leitzaldean paratu diren edukiontzia harrera ona izaten ari dira. Halaxe erakusten dute datuak. Bilketaz arduratzen den Ecogras enpresak emandako datuen arabera, duela urtebete Leitzaldean edukiontzia paratu zirenetik eta aurtengo otsailean Baztan, Bertizarana, Bortziriak eta Malerrekan paratu zirenetik 7.500 litro jaso dira eta «balorazio positiboa» egin dute. Bildutako olioa biodesela egiteko erabiltzen dute gero, eta bildutako olio litro bakoitzeko bioerregai litro bat lortzen da.

ESKUALDEZ ESKUALDE

Mendialdea Mankomunitatea izan zen guztietan aitzindaria. Areso, Goizueta eta Leitzan joan den urtean paratu ziren edukiontzia, bat Areson, bi Goizuetan eta zazpi Leitzan. Urtebetean guztira 5.780 litro bildu dira.

Malerreka, Bertizarana, Bortziriak eta Baztanen, berriz, aurtun bat egin dute ekimenaren. Otsailaren 2an paratu ziren edukiontzia, Bortzirietan zortzi (Arantzan, Etxalarren eta Igantzin bana, Beran hiru eta Lesakan bi), Malerrekan eta Bertizaranan lau (Donezteben bi, Sunbillan bat eta NARBARTEN bertzea) eta Baztanen bertze lau (Arizkun eta Iruritan bana eta Elizondon bi). Martxoaren 2an bildu ziren olioak lehendabiziko aldiz edukiontzia paratu zirenetik, eta Bortzirietan 645 litro bildu dira; Malerrekan 370 litro; Bertizaranan 105 litro eta Baztanen 600 litro. Ondoko taulan herri herriko datuak.



LEITZALDEKO DATUAK 2010ETIK 2011RA

| HERRIA | TOKIA | BILDUTAKO LITROAK |
|-----------------------------|------------------|-------------------|
| ARESO* | Autobus geltokia | 750 |
| GOIZUETA* | Udaletxea | 720 |
| | Herri sarrera | 425 |
| LEITZA* | Patxi Arrazola | 535 |
| | Patxi | 570 |
| | Manuel Lasarte | 775 |
| | Elbarren | 440 |
| | Udaletxe ondoan | 645 |
| | Suhiltzaileak | 750 |
| | Kiroldegia | 170 |
| LEITZALDEAN GUZTIRA* | | 5.780 |

* Leitzaldeko datuak urte osokoak dira, bertzeak hilabete batekoak

MALERREKA 2011/02/02TIK 2011/03/02RA

| HERRIA | TOKIA | BILDUTAKO LITROAK |
|---------------------------|--------------------|-------------------|
| DONEZTEBE | Aparan | 170 |
| | Merkatuko Plaza | 110 |
| SUNBILLA | Ramon Latasa plaza | 90 |
| MALERREKAN GUZTIRA | | 370 |

BERTIZARANA 2011/02/02TIK 2011/03/02RA


| HERRIA | TOKIA | BILDUTAKO LITROAK |
|-----------------------------|--------------------|-------------------|
| NARBARTE | Frontoi-trinketean | 105 |
| BERTIZARANAN GUZTIRA | | 105 |

BORTZIRIAK 2011/02/02TIK 2011/03/02RA

| HERRIA | TOKIA | BILDUTAKO LITROAK |
|-----------------------------|------------------------------|-------------------|
| ARANTZA | Herri sarrerako aparkalekua | 60 |
| BERA | Agerra auzoa | 150 |
| | Eztegara pasealekua | 100 |
| | Iturlandeta | 80 |
| ETXALAR | Herri sarrerako aparkalekuan | 60 |
| IGANTZI | Aparkalekuan | 50 |
| LESAKA | Arretxea Karrika | 105 |
| | Eltzeta Karrika | 40 |
| BORTZIRIETAN GUZTIRA | | 645 |

BAZTAN 2011/02/02TIK 2011/03/02RA

| HERRIA | TOKIA | BILDUTAKO LITROAK |
|-------------------------|-----------------------------|-------------------|
| ARIZKUN | Plaza | 180 |
| ELIZONDO | Aldude Karrika | 160 |
| | Xalbador Karrika | 90 |
| IRURITA | Berroeta-Zigarako errepidea | 170 |
| BAZTANEN GUZTIRA | | 600 |



DONEZTEBE

UDALA → EGITASMO BERRIA

Turismo bulegoak atepak zabalduko ditu Aste Santuan

MP5ekin egin ahalko dira herriko bisitak

TTIPI-TTAPA

Turismo bulegoa Aste Santuan jarriko dute berriro ere martxan. Bisita gidatuak egin ahal izanen dira herriko gune garrantzitsuenak ezagutu ahal izateko.

20 Mp5 paratuko dira bisitarentzat eskuragarri eta herriko mapak ere banatuko dira herria ezagutzeko. Mp5ak eskuratzeko ez da ordaindu beharrik izanen baina trukean NAN-a utzi beharko da. Behin bisita akitutakoan, eta Mp5a bueltatutakoan itzuliko dute nortasun agiria.

Egitasmo berri hau Bera, Lesaka eta Elgorriagako Udalek ere paratuko dute martxan.

Haur eskola beteta

Haur eskolak eskaintzen dituen leku guztiak bete dira. 43 leku zuden eta ez dago gehiagorentzat lekurik. Doneztebe eta inguruko haurak izanen dira.

Udaletzeko lanak akituak

Akitu dituzte Herriko Etxean egiten ari ziren obrak eta aste honetatik aitzinera udaletzeko sarrera nagusia erabili ahal izanen da. Oztopo arkitektonikoak kendu dituzte. Egokitzapenak lehenbiziko solairuan egin dira, sarreraren eta lehenengo solairuaren artean. Igogailua jarritzeaz gain, komunak, es-

kailerak, baranda eta argiak berritu dira. Komunak ere goitik behera berrituak izan dira. Orain arte ez baitzuten ezindu fisikoentzako baldintza egokirik betetzen.

Lanak 130.000 euroko aurrekontua izan dute eta Espainiako Gobernuaren E Planetik hartutako dirua izan da.

Aldaketak Errekako egutegian

Egutegi arazoak direla eta, zenbait aldaketa egin ditu Erreka Kirol Elkartek bere jardueretan. Herri krosa ohi baino laisterrago izanen da, ekainaren 12an. Eta Errekaren Eguna ekainaren 17an eta 18an.

Bertzalde, *Erreka 1976-2011: Atzo, Gaur eta Beti; Lagundu Etor-kizuna lantzen!* Ilopean, Nafarroako Kutzaren *Zuk aukeratu, zuk erabaki* egitasmoaren barne, proiektua aurkeztu du Errekak. Elkartearen ekitaldiak antolatzeke dirulaguntza garrantzitsua dela gogorarazi dute.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Kilometriagatik ordaintzen zaiena igotzeko eskatuz postariak

Nafarroko landa eremuan aritzen diren postariak protesta egin zuten martxoaren 30ean, eliz atarian. Jakina da baserri inguruetan harat-honatean kilometro aunitz egin behar izaten dituztela eta azken hiru urteetan, nahiz eta erregaiaren prezioa %50 igo den, beraiek berdin-berdin kobratzen dute: kilometroko 22 zentimo. Beraz, kopuru hori eguneratzea eskatu dute. Gure inguruko postari batzuek 70 eta 80 kilometro artean egin behar izaten dituzte egunero eta hori salatzeke, agerraldian pankarta adierazgarria plazaratu zuten: *Landa eremuko postari izatearen miseria* zioen, eta marrazkian, erregai-hornigailu batekin postaria apuntatzen...

zalain
JATEETxea - RESTAURANTE

Zalain auzoa z/g
31780 Bera
T. 948 631 106
w. www.zalain.com

zalain

Martiko
Pol. Zabal, s/n.
31780 Bera, Nafarroa
Tel: 948 625018 Fax: 948 625038
www.martiko.com

Hostelak eta etxeak eta etxeak

Martikorekin zu zeu sukaldari.

DENDA ORDUTEGIA
ASTELEHENETIK ORTZIALERA
08:00etatik 17:00etara

FLASH

65 urtetik goitiko pilotariei desafioa luzatu die Bautista Iruruetak

Sortzez Elgorriagakoa eta gaur egun Donezteben bizi den Bautista Iruruetak pilota gosez segitzen du. Duela urte batzuk desafioa luzatu zien bere adinekoak edo zaharragoak ziren pilotariei, partida bat jokatzeke. Betidanik gustuko izan du pilota eta Ameriketan partida zenezan hainbat partida jokatzen zituen zuriz. Baina Euskal Herrira bueltan, pilotarako grina ez zaio itzali eta oraingoan ere bere adinekoak edo zaharragoak diren Nafarroa, Gipuzkoa edo Bizkaiko pilotariei luzatu die erronka esku pilotan aritzeko. Muga eguna garbi dago: 1946ko apirilaren 18an jaio zen Bautista eta data hori edo lehenago jaiotako edozeinen kontra jokatzeke prest dago. Hortik aitzinerakoak bi pilotariak hitzartuko litzuzke; Etxalarko frontoia proposatu du berak, baina bertze edozeinetan ariko litzateke eta honelako apostuetan jokatzen ahal den dirua ere ez du zehaztu: «Nik pilotan jokatu nahi dut eta jendea mugitzeke dirua mugitzeke ere ongi dago, baina bazkari bat ere jokatzen ahal dugu, hori guttienekoa da». Prest dagoenak 646 799828ra deitzeke aski du. Bere helburua pilotan jokatzea da, «lehen-go apostu moldea pilotan ere berreskuratu, frontoiko bizitasuna berreskuratzeko» eta badaki garai batean pilotari onak izandakoak badirela. Baina pena ematen dio pilotarako zaletasun eta grina adinarekin apaltzen doalako.

EMAN IZENA ORAIN ETXEBIZITZA BABESTUA ESKATZEN DUTENEN ERROLDA BERRIAN

Nafarroan BOE edo PTE bat eskuratzeko
bide bakarra

Esleipen-kanpainak hiru hilean behin, VINSAn eta sustatzaile pribatuen babestutako etxebizitza guztiekin. Udalerria, etxebizitza mota, gela kopurua... aukeratu ahal izango dituzu.

Eman izena www.vivienda.navarra.es web orrian; edo aurretiko zita eskatu 012 telefonoan, etxebizitza webean edo Infonavarraren bulegoetan (Orreaga etorbidea 11, Iruñea eta Foruen plaza 5-6, Tutera).

ETXEBIZITZEN
ESLEIPENA
EKAINETIK
AURRERA



**Nafarroako
Gobernua**

Informazio gehiago web orrian eta etxebizitzak
eta eraikinak birgaitzeko erakundearen bulegoetan

vinsa 
Viviendas de Navarra S.L.

ITUREN

UDALA → AZPIEGITURAK

Osasun kontsulta akitzeko dirulaguntzaren esperoan dago Udala

E Planetik hartutakoa ez da nahikoa izan egin beharreko guztia egiteko

84.390 eurokoa. Laguntza hauek Espainiako Gobernuak bideratutako E Planetik jasotakoak dira. Dirulaguntza horiekin obraren zatirik haundiena egitea lortu da, baina ez da nahikoa izan lan guztiak akitzeko. Iturgintza, elektrizitate eta ezinduentzako egokitzapenak egiteko ez da dirurik ailegatu.

Gaur egungo anbulategia Medikuaren Etxea izeneko eraikinean dago eta herritarrez gain, Zubietako eta Elgorriagako bizilagunek ere erabiltzen duten zerbitzua da.

Arkaitz MINDEGIA


Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzen esperoan dago Udala, anbulategi berriaren obrak akitu ahal izateko. Orain artean, bi diru partida jaso eta inbertitu dira eskola zaharra berritzen. Horietako bat 51.187,40 eurokoa eta bertzea



ARGAZKIA: JON MIKEL ARAGON

Eskolako ikasleak haur kantari jaialdian

Azken hilabeteetan lanean fuerte ibili dira eskolako ikasle eta irakasleak eta apirilaren 2an Elizondan egin zen Nafarroako Haur Kantari Jaialdiaren kanporaketan hiru taldek parte hartu zuten. Ttikien taldea, Do, Re, Mi, June Ariztegi, Aimar Arretxea, Endika eta Maddi Astrain, Ilazki Cruz, Marion Elizalde, Xabier Goizueta, Saioa Marizkurrena, Janire Mikelarena, Naiara Anso, Alazne Mariezkurrena, Oihan Martinez, Ibai eta Egoitz Bueno eta Lorea Varela y Falquek osatu zuten. Bigarren taldean, Lagun taldean, Haizea Aioroa, Mattin Altzu, Lorea Bazterrika, June Cruz, Estefania Etxebeste, Haizea Artieda, Ainara Altxuri, Ekain Ariztegi, Enara Ariztegi, Oier Mikelarena, Leire Manterola, Janire Mindegia eta Maider Varela y Falque aritu ziren. Eta azkenik Joare taldean Gurutze Fagoaga, Imanol Sansiñena, Zuriñe Bueno, Olaia Alzuri, Hodei Aioroa, Ane Bazterrika, Iratxe Fagoaga, William Lombana Giraldo, Andoni Mindegia eta Duba Saadik parte hartu zuten. Hiru talde hauei musikarekin laguntzen eskolako ikasle ohiak izan ziren: baxuarekin Manex Ormazabal, trikitixarekin Joxe Mari Mitxelena, bateriarekin Beñat Etxekolonea, kitarrarekin Garbiñe Olazar, xilofonoarekin Ainhoa Larrea. Lan bikaina egin zuten hiru taldeek eta gainera, Joare taldekoek finalera sailkatzea lortu zuten.



- Eskopeten salmenta eta konponketa
- Ehiza eta arrantza goiak
- Ehiza baimenen tramitazioa

armadenda

andueza

Paotxa Eraikina • Gorostlaga, z/g • Anaka Industrialdea
T. 943 66 72 67 - F. 943 66 71 91 • 20305 IRUN
c.andueza@euskalnet.net

UDALA → EUSKARAREN ALDEKO LASTERKETA

600 euroko dirulaguntza eman dio Udalak 17. Korrikari

Ibilbidea ez denez herritik pasatzen horrela egitea erabaki du

Fermin ETXEKOLONEA

Dagoeneko Euskal Herri osoan barna dabilen euskararen aldeko lasterketari bere ekarpena egin dio herriak eta Udalak 600 euroko dirulaguntza eman dio.

Aurten Korrikaren ibilbidea ez da herritik pasatuko eta horregatik erabaki du Udalak kilometroa erosi ordeztu laguntza ematea.


Jubilatuak Portugalen

Joan den astean hartu zuten herriko zazpi jubilatuak Portugalerako bidea, Arkupeak erretiratuaren elkarteko beste hainbat kiderekin bate-

ra. Astea han pasatu ondotik, astearte honetan egitekoa zuten buelta Etxekeneko Jose Luis Mendiburuk eta Ana Mujikak, Markeseko Xanti Uhaldek eta Mari Karmen Elizalde, Ixkinako Miguel Arregi eta Dolores Indakoetxeak eta Okindegiko Mari Karmen Ormaetxeak. Espero dugu ongi pasatu izanen dutela.

Ander Fuentes finalaren atarian

Oso gutxiatik, baina Nafarroako Bertsolari Txapelketako finaleratu kanpo gelditu da Ander Fuentes *Iturri*. Zortzi bertsolari sailkatu ziren finalera, eta herriko bertsolaria bederatzigarren gelditu zen finalerdietan, Xabier Terreros zortzigarrenak baino hiru puntu gutxiagorekin, eta beraz, finaleratu pauso batera. Ea hurrengoan zortzi den.



ARGAZKIA: JON MIKEL ARAGON

Gaztetxoak kantari

Kontent itzuli ziren neska-mutikoak apirilaren 2an Elizondon Nafarroako Haur Kantari Jaialdian kantatu ondotik. Iturengo eskolako beste ikasleekin batera, bortsu herritar aritu ziren abesten, Arantxa Diez zuzendari zutela: Naiara Anso, Saioa Mariezkurrena, Haizea Artieda, Duba Saadi eta Mikel Etxekolonea. Parte hartzeko, Aierrik musika taldearen laguntza ere ezinbestekoa izan zen, musika jotzen Aierrik-ekoak aritu zirelako. Bestalde, Arantxak gurasoei eskerrak eman nahi izan dizkie entsaioak direla eta, harat honat bueltaka ibili behar izan dutelako.



ARGAZKIA: BEÑAT ETXEKOLONEA

Istripu bitxia

Oso ohikoa ez den istripua gertatu zen joan den astean zentralerako bidean. Kamioi bat kargatua zihoala, bideak beheara edo zeditu egin zuen eta kamioia ia erre-kara erori zen. Gidariak sustoa hartuko zuen akaso, baina zorionez, ez zen zauritu.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontrabutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESACA: Siltirio, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713



BORTZIRI UNSION ANAIAK

Sukalderako altzariak

Bereau etxea • LESACA
Tel: 948 637 266 • 607 226 691 • Fax: 948 637 511

BERTIZARANA

UDALA → EZTABAIDAK SORTU DITUEN GAIA

105.000 m² lur industrial berria sortu nahi du Udalak

Arcelor-Mittal ixtean Legasan 200.000 metro koadro libre geldituko direla oroitarazi dute bizilagunek

TTIPI-TTAPA

Udalak 105.000 metro koadro lur industrial sortuko du. Andres Etxenike alkatearen erranetan, lur eremu industrial hori bi proiektu pribatu hartuko dute eta hirugarren egitasmo bat Udalarena da.

Lehenbiziko proiektua lehengo N-121A errepide ondoan joanen litzateke, 35.000 metro koadro hartuz, eta aurrez kalkulaturako platerak, saltokia eta gasolindegia eginen lirateke. 40 bat lanpostu sortuko litzuzke.

Errepidearen bertze aldean egonen litzateke Udalaren egitasmoa, 20.000 metro koadro hartuz eta horietatik 6.000, errepidetik hurbilen daudenak, bi nabe jartzeko. Herriguneari dauden tailerrak industrigune horretara eramatea da Udalen asmoa eta bi proiektuetara sarbidea izateko biribilgunea eginen litzateke. Hala, kirol hornidurarako bideratua zegoen lur eremua industria-rako birkalifikatu du Udalak Hirigintza Planean.

Apirilaren 1ean akitu zen lehenbiziko proiektu

horri alegazioak aurkezteko epea eta bizilagun talde batek aitzinetik jakinarazia zuen aurkeztuko zituela. Bizilagunen hitzetan, «beti agertu gara birkalifikazio honen kontra, izan ere, 500 metro eskasera baitago Legasako industrialdea, industriarako okupatzeko 200.000 metro koadro lur eremua duena».

Ildo honetan, ingurumenaren defentsan eta Baztan-Bidasoaldean industria eta enpleguabultzatzeko, birkalifikazio honen kontrako alegazioak aurkeztu ditu Nafarroako Alderdi Sozialistak ere eta kaltetutako bizilagunek babes emanen diote PSNk alegazioetan adierazitakoari.

Bizilagunen arabera, «inoiz ez gara egon eta ez gara egonen lanpostuak sortzen dituzten eta Bertizaranari balioa ematen dioten proiektuen kontra, baina ez promotoreari gogoratzen zaion lekuan, egon behar duten lekuan baizik, hau da, Legasako industrialdean». Alkateak, bere alde-tik, adierazi du «oraindik lur hori multinazional baten lur pribatua dela eta ez dakiela horrekin zer eginen duen. Seguruenik etorkizunean Nafarroako Gobernuak eskuratuko du, baina bien bitartean gure garapena egin nahi dugu».

Bizilagunek gogoan dute, bai alde batera eta bai bertzeri ere, hamar



Honela geldituko litzateke eremua, Bertizaranako Udal Hirigintza Plana onartzen bada.

ARCELLORREN LURRA
«Oraindik ArcelorMittal dagoen lurra multinazional baten lur pribatua da eta ez daki zer eginen duen. Seguruenik etorkizunean Gobernuak eskuratuko du, baina bitartean gure garapena egin nahi dugu»

Andres ETXENIKE
Bertizaranako alkatea

ARCELLORREN LURRA
«Iritzi publikoak ongi dakienez, gezurra da ArcelorMittalek lurra ez dituenik saldu nahi. Bidasoa Plana gauzatzeko ari da eta ondorioz, lur industrial hori interesatu guzuen esku egonen da»

Bizilagun taldea

metro edo guttiagora etxebizitzak daudela eta 2004an eta 2006an aurkeztutako aurretik kalkulaturako plateren proiektu industrialak bertan behera gelditu zirela.

Herriko Etxeak birkalifikazio honetarako eta Legasako industrialde handiaren garapena uzteko erabiltzen duen argudioa zera da, ArcelorMittalek behin eta berri ez ezkoa eman diola industriarako lurren sal-

mentari eta hortaz, industrialde berria egitearen beharra. Bertzelakoa dio, ordea, bizilagun taldeak: «Iritzi publikoak ongi dakienez, gezurra da ArcelorMittalek lurra ez dituenik saldu nahi. Gaur egun Bidasoa Plana gauzatzeko ari da eta, ondorioz, lur industrial hori interesatu guzuen esku egonen da». Bailaran Bertizko Natur Parkea dagoela ere nabarmendu dute herritarrek, «Baztan-Bidasoaldeko turismoaren motore nagusia, eta proiektu honek modu larrian kaltetuko du bailaren irudia».

Baina bi egitasmo hauen gain, gaur egungo N-121-A errepide ondoan bertze industrialde bat eginen litzateke. Gasolindegia ondoan hotela, ospakizun handietarako jatetxea eta bi nabe hartuko litzuzke 50.000 metro koadroko eremuak.

Bertizaranako lurraldea okupatzeko modelo (EMOT delakoa) onartu berria da eta alkateak dioenez, zerbitzu publiko bideratutako lur eremuak herrigunetik hurbilago kokatuko dira. Apirilaren hasierako onepena emateko zaio aldaketa hauek agertzen dituen Udal Hirigintza Planari eta alegazio epea zabalduko.

Industrigune horietako baten kontra alega-

zioak aurkeztu ditu bizilagun talde batek.

Korrika besta giro ederrean

Korrika Nagusiaren atarian, Korrika besta egin zen apirilaren 2an Bertizarana eta Malerrekan barna. Goizean Bertizko aparkalekutik abiatuta 20 bat lagunek egin zuten Legasarako bidea bizikletarekin. Hemen harri berao jaso zuten txirridulariek eta gosari ederra eskaini zieten. Legasatik Donezteberako bidea hartu zuten, eta herrian barna itzulia egin ondotik, Sunbillan akitu zuten ibilbidea. Umeen-tzako jolasak eta ume eta helduentzako txapel-jaurtiketa egin zuten hemen. Lagun gutti bildu arren, egun polita izan zela eta giro ederra izan zutela adierazi dute Malerreka eta Bertizaranako ki-deak biltzen dituen Korrika Batzordetik.

Aipatu, Legasa, Donamaria, Elgorriaga, Doneztebe eta Ituregi lagunek parte hartu zutela Korrika besta honetan.



KIROLAK → AIZKORA APUSTUA

Kastrok ezin izan du deus egin Zalduaren kontrako desafioan

Zortzi minututik gorako aldea atera dio gipuzkoarrak

J. URROTZ/TTIPI-TTAPA

Garaipenik gabe, baina ez gaizki aritu zelako. Raul Kastrok (29 urte) ezin izan zuen apirilaren 3an Zumarragako Xabier Zalduarekin (32 urte) Donezteben egina zuen desafioa irabazi.

Bakoitzak 18 kanaerdiko moztu behar izan zituen, eta denak Kastrok plazaratu zituen. Alde bakoitzak 3.000 euro jokatu zituen eta hasieratik dirua Zalduaren alde atera bazen ere, ez zen aunitzirik jokatu.

Zumarragakoa hasieratik jarri zen aitzine-

tik, eta berehala hasi zen aldea ateratzen. Lehenbiziko enborean 15 segundoko tartea egina zuen, eta bigarren enberrerako 33 segundoko tartea lortu zuen.

Ez zuen gaizki jokatu Kastrok, baina Zalduek indartsu agertu zen eta sasoiak dagoela erakutsiz, gozatu egin zuen. Azkenean, lan guztiak akitzeko 44 minutu eta 43 segundo behar izan zituen gipuzkoarrak eta 53 minutu eta 4 segundo urroztarrak. Hala, bi apustu jokatu eta biak irabazi ditu, lehendik Ander Erasun menderatu baitzuen.

Apustuaren ondotik, Donamariako ostatuan bazkaldu zuten Kastrok eta lagunek, guztira 25 lagunek.



Raul Kastro aizkoran.

ARGAZKIA: KOLDO ALDUNTZIN

OIZ
Iazkoa baino ia 62.000 euro tikiagoa den aurrekontuari lehen onespenera eman dio Udalak

TTIPI-TTAPA

Alegaziorik aurkezten ez bada, 187.543,65 euroko aurrekontua izanen du Udalak 2011 ribegira. Horiatik 17.098,17 euro inbertsioetara bideratuko dira, eta nagusiena herrian WiFi zerbitzua paratzea izanen da, Aste Santurako martxan egotea da espero dena. Iazkoarekin konparatuz, 61.728 euro murriztagoa izanen da aurtengo aurrekontua. Aldi berean, inbertsio guttiago eginen dira: iaz inbertsioetan 55.000 euro gastatu bazituen, aurten 37.902 euro guttiago.

Hartu aurea eta Aurreztu Uda 2011

Erreserba eginez gero maiatzaren 31 baino lehen uda honetan preziorik hobereenen bidaietako duzu, abuztua barne.

Itak,
Europa, Zirkuituak,
Karibe eta Brasil

%22
arteko Oto.

Itsas bidaiak

%50
arteko Oto.

Gure
Kostak

%60
arteko Oto.

Plan Precio Seguro
OPORTUNITATE SAHARATZAFUA

Berme Osorekin

Haurrak
Dean

Deskontuak
3. eta 4.
laguntzetatik

Donako Inbertsioak
3 hilabetera
INTERERIK GABE

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK: Eztegera 22, Behaa . 31780 Bera Nafarroa . Tel. 948.631.388 . e-Posta: bera.1266@viajesiberia.com

Donako Inbertsioak 3 hilabetera interesik gabe: TIN: %0, UTB: %0. Funtzionarioak 6 eta 10 hilabetera interesik gabe %2,00ko komisionekin. TIN: %0, UTB: %7,15 sei hilabetera interesik gabe ordanduta. TIN: %0, UTB: %4,90 hamar hilabetera interesik gabe egindako ordainketetarak. Interesak Viajes Iberiak subentzionatutako OTO VISA Viajes Iberia txartelarekin ordainduz gero, Santander Consumer Financia, SA-k jaulkitako txartela. Onera honek funtzio-erreserba baimena behar du. 23/02/2011/00001. Gaherako deskontuak VISA Viajes Iberiarekin ordainduta. Ordaintzeko beste erak Kostak %35 arte, Itsas bidaiak %45 eta beste produktuetan %17 titela. Plan Precio Seguro: eskaintza horiek aurkituz gero, berdintzeko diruak. Eta erreserba egin ondotik prezioak jehin baldin bada, diferentzia itzuliko diruak. Berme osoa: abuztuaren 31 baino lehen VISA Viajes Iberia duzue berberentzat. Bermearen erabilera: atzerapena, overbooking-a, hargailu bertari beharrezkoak, putak gaitza. Bideratu gure eskaintza duzuen belduz.

Bideratu joan

VIAJES IBERIA

EZKURRA

ATZERA BEGIRA → ERAIKIN ERLIJIOSOAK

Ondare erlijiosoak herriarenak ala Artzapezpikutzarenak dira?

Udal artxiboko datuak aztertu dira

Fernando ETXEBERRIA

Azken urteotan, erlijioarekin lotura duten ondasunak bere izenean paratzen ari da Artzapezpikutza eta horren ondorioz, eztabaida ugari sortu da Nafarroako hainbat udalen eta Artzapezpikutzaren artean. Egoerarikusita, ondasun horien azterketa serio eta historikoa egitea komeni litzateke eta horretarako elizaren eta Udalen artxiboak kontsultatu beharko liriateke.

Ezkurraren kasuan, udaletxeko artxiboan dauden dokumentu guztiak eta Udalaren bilkuretako aktak arretaz irakurri ditut. Elizari, ermitari eta parrokiako etxeari erreparatu beharko litzateke, hilerria, dudarik gabe, Udalarena baita. Aipatu, hemen agertuko diren datuak udal artxibotik hartutakoak direla.

Eliza eraikitzeari buruz ez dago daturik, baina zaharberritze lanak eta material osagarriak maiz ageri dira.

Horren arabera, 1672an Ezkurrako bikarioa zen Martin de Urtasunek zilarezko gurutze bat erosi zuen, eta 70 dukat kostatu zen. Dirua «30 lagun elizkoik limosnarekin eman zuten eta gainerakoa elizako errenta batzuk salduta ateratu zen».

KONPONKETAK ELIZAN
1718an aldare nagusiaren gainean erretaula berria eraiki zen eta hori egitea 227 dukat kostatu zen. Gastu hori «herriko jendeak limosnarekin ordaindu zuen».

1708an elizaren alde bat konpondu zen, aldare berri batekin birjina paratzeko, «herriarren kontura egin zen elizak esku hartu gabe».

1710ean sarrerako ateak eta elizataria zaharberritu ziren.

1718an aldare nagusiaren gainean erretaula berria eraiki zen eta hori egitea 227 dukat eta 3 errealeko kostatu zen. Gastu hori «herriko jendeak limosnarekin ordaindu zuten, apaintzeko eta elizari itxura txukunagoa emateko zelako. Izan ere, lehengo erretaula zakarra izanda, egoera txarrean zegoen». Erretaulan testu hau irakur daiteke, gaztelaniaz: «erretaula hau debozioagatik eta herri honetako biztanleen kontura jarri zen, eliz honetako nagusiaren baimenarekin».

1816an elizako dorrerako erloju berria erosi zen. «Herriarren eta herri adierazgarri honetako errenta eta elizako primiziek in erdibana ordaindu zen». 300 pesoko gastua eragin zuten lanek.

1906an 12 haritz eta 30 pago eman zituen Udalak elizaren atzeko

aldea eraiki ahal izateko.

1940an dorrea bota eta berriz egin zen eta Udalak lan horietarako 8.000 pezeta bideratu zituen. 1946an beste 2.500 euro eman zituen elizaren erdian argi-armiarma berria jartzeko.

1948an sakristira eta parrokiaren etxera ura ekartzeko gastuak ere Udalak ordaindu zituen.

1960an 25.000 pezeta eman zituen Udalak elizan zaharberritze bartzuk egiteko.

Bestalde, oso aspalditik, Udalak bere gain hartu zituen sakristauren gastuak, parrokiarekin kolaboratzeko edo elizaren dorreko erlojuaren funtzionamendu egokiaz arduratzeko.

Artxiboan ez dago parrokiako etxeari buruzko datu bakar bat ere. Ermita berriari buruzko kontuak bai ageri direla, baina horien berri hurrengoan emanen dugu.

Maritxu Elizalderi agur

1929an jaio eta 20 urte beranduago, San Martzial egunarekin, ezkondu zen Maritxu Elizalde Mariezkurrena, Miguel Gastearenarekin.

81 urterekin apirilaren 3an esan zigun agur Komenzanea bordako emakumeak. Pertsona jatorra eta alai, lerro hauen bidez doluminak eman nahi dizkiogu familiari.



Eliza barreneko txokoak.

UTZITAKO ARGAZKIAK

Zeramikaren benta
Venta du Carrelage

asteartetik ostirala arte
09:00-12:30 / 14:30-19:00
larunbata
09:00-12:30 / 13:30-18:00

Lori venta
31710 Zugarramurdi
Tel.: 00 34 948 59 90 24
Fax.: 00 34 948 59 93 02
Mug.: 06 15 11 52 23

www.laventaducarrelage.com

KIROLA → LARUNBAT HONETAN

150 kilo inguruko harriarekin marka egiten ahaleginduko da Josetxo Urrutia

Harri kubikoarekin saiatuko da bost minutuko txandan

TTIPI-TTAPA

Bere pisuaren bikoitza duen harriarekin marka ahalegina egiten saiatuko da Josetxo Urrutia larunbat honetan, apirilak 16. 150 kilo inguru dituen harri kubikoa erabiliko du Urrutia, eta bost minutuko txandan ariko da. 18:00etan hasiko da marka ahaleginarekin.

Jeikiren kontzertua larunbatean

Jesukristoren azken 7 hitzak izenburupean, kontzertua eskainiko du Jeiki abesbatzak larunbat honetan, apirilak 16. Kepa Mateorena, Gregorio Iregi eta Orkatz Erbiti izanen dira tenoreak, Juan Luis Aranburu baxua, Joxe Mari Azpiroz baritonoa eta Rebeka Rodriguez sopranoa. Miren Irurtia pianoarekin ariko da eta guztia zuzentzen Florencio Irurtia. 20:00etan hasiko da saioa elizan.

Karta joko txapelketa

Karta joko txapelketa

egiten ari dira Gaztetxean hilabete honetan. Apirilaren 8an hastekoa zen lehia, mus txapelketarekin. Ostiral honetan, apirilak 15, txintxon txapelketa jokatu da eta hilaren 21ean, berriz, eskoba txapelketa. 22:30ean hasiko dira partidak, izen-ematea egun berean egin behar da eta parte hartzaileek hiru euro ordaindu behar dituzte pertsonako.

Astero ahalik eta punturik gehien gehitzea da kontua eta azken egunean, punturik gehien bilduak dituenak jasoko du sari nagusia. Halere, asteroko sariak ere izanen dira.

Adimen emozionalari buruz tailerra

Denok Bat Guraso Elkarteak antolatuta, hitzaldi eta tailerrak egiten ari dira azken aldian. Martxoaren 31n, adibidez, *Komunikazioa familian* izan zuten hizpide Gabi Goia arantzarrarekin. Apirilaren 15, 22 eta 29an, berriz, adimen emozionalari buruz ariko dira. Teoria eta praktika eginez landuko dute gaia, 15:00etatik 16:30era. Tailer hau ere Gabi Goiak eskainiko du eskolako jantokian.



ARGAZKIA: OIER EIZMENDI

Jaialdi arrakastatsua

Jendetza herrian barna kontzertuez gozatzera joana, giro ona, sarrerak agortuak... Ezin zen gehiago eskatu. Eta antolatzaileak, noski, pozik. Oso balorzio ona egin dute Atekarock jaialdiaren antolatzaileek, apirilaren 2ko festak izandako erantzuna ikusita, eta eskerrak ere eman nahi izan dizkiete egun horretan jaialdian izan ziren eta guztia aurrera ateratzeko lan egin zuten guztiak. Horrekin batera, kontzertuetan edo Gaztetxean agertu diren objektuak Herriko (948 610909) utzi dituztela jakinarazi dute antolatzaileek.



ARGAZKIA: J. M. BARRIOLA

Oreka lortzen laguntzeko hitzaldi arrakastatsua

Gure burua ezagutu eta oreka lortu, posible ote? izenburupean hitzaldia eta saio praktikoa egin dira martxoan Urko Arozenarekin, Aurrera elkartearekin, eta erantzun ona izan dute jendearen aldetik.

Bilgune Feministak azken erailketa salatu du

Yanela Zaruma Cabrera 22 urteko neska gazte burlatarraren heriotza salatzeke elkarretaratzea egin zen apirilaren 6an Lopeneko atarian, Leitzaldeko Bil-

gune Feministak deituta. Yanelaren gorpua hi-

laren 4an aurkitu zuten, indarkeria zantzuekin.

gaztelu scl
iturgintza
kalefakzioa - saneamendua - gasa
Tfnua: 948 510 086 - 948 510 156
Faxa: 948 610 856
LEITZA

GOIZUETA

UDALA → BATZARRERAKO DEIALDIA

Iralekuen konbenioari buruzko azalpenak emanen ditu ostiralean Udalak

Azken urtebetean gestioak egiten aritu da Udala

TTIPI-TTAPA

Urteetan horren atzetik ibili ondoren, badi-rudi azkenean iralekuen konbenioak aurrera jarraitzen duela. Azken urtebetean horretarako gestioak egiten aritu da Udala eta bere proposamenaren berri, ostiral honetan, apirilak 15, emanen du. Batzarra 19:30ean hasiko da.

Ospitaleko etxebizitzaren proiektua

Ospitaleko etxebizitzak errentan emateko proiektua egitearen lana adjudikatu du Udalak. Enrique Mirando arkitektoak eginen du proiektua, 60.000 eurotan. Honen harira, aipatzekoa da, Udala Espainiako Gobernuarekin negoziatzen ari dela lan hauen erdia estatuko gobernuak ordaindezan.

Ikastaroa

Suhiltzaile boluntarioen anbulantziako laguntzaile teknikoan (A.T.A.) ikastaroetan parte hartu nahi duenak apirilaren 30a baino lehen

eman beharko du izena Herriko Etxean.

'Zer da zuretzat Goizueta?'

Goizuetarrek herriari buruz zein iritzia duten jakin asmoz, argazki lehiaketa antolatu du Gazte Asanbladak aurtengo estreinako aldira. Argazkian *Zer da zuretzat Goizueta?* islatu beharko da, eta partaide bakoitzak gehienez ere bi argazki aurkeztu ahaliko ditu, bakoitza bere izenburu eta azalpen tiki batekin. Hori bai, ez da onartuko photoshop edo bestelako programekin editatutako argazkirik.

Argazkiak aurkezteko azken eguna larunbat hau, apirilak 16, izanen da. Argazkiak *zer dazuretzatgoizueta@hotmail.com* helbidera bidali beharko dira edo bertzela, Amaia kafetegian utzi, beti ere, formatu digitalean. Dagoneko argazkiak iristen ari direla adierazi dute Gazte Asanbladatik, baina oraindik ere parte hartzera animatu dituzte herritarrek, zahar eta gazte. 150 euroko saria egonen da jokoan.

SAGARDOTEGIA

Urteroko ohiturari jarraiki, larunbat honetan, apirilak 16, sagardotegira joateko irteera anto-



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Jantzi berriak pilotari gaztetxoentzat

Umore Ona Peñaren koloreak –beltza eta berdea– daramatzan txandalak eta kamisetak estreinatuta dituzte pilota eskolan ari diren 4-5 eta 13-14 urte arteko 21 gaztetxoek. Eta hori guztia Eguberrietan saldu zen loteriari esker lortutako diruarekin egin da. Ez hori bakarrik. Ikasturte honetan erabiliko dituzten muki eta esparatrapuak erosteko ere erabili baita loteriarekin bildutako dirua. Hain zuzen, jantzi berrien aurkezpena martxoaren 24an egin zen, guraso eta haurrentzako luntx batekin. Bost dira gaur egun pilota eskolaren martxa daramatenak: Angel Salaberria, Jose Jabier Aizkorbe, Ximon Apezetxea, Joxenton Apezetxea eta Mirentxu Jimenez eta lerro hauen bidez, eskerrak eman nahi izan dizkiete loteria erosi zuten guztiei. Irabazi asmorik gabe ari da boskotea lanean, eta herrian pilota bultzatzea da helburu nagusia. Gisa berean, Nafarroako Kutxaren *Zuk aukeratu, zuk erabaki* ekimenean proiektua aurkeztekotan direla ere aipatu digute. Bestalde, pilota kontuak alde batera utzita, futboleari ari direnentzat ere jantziak erosi dira. Feri Eguneko talo postuan lortu zena aurtengo futbol eskolara bideratua izan da, eta 200 euro gastatu dira jantzi berriak erosteko. Oraindik beste 110 euro dituzte gastatzeko.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Kerman gure artean

Mintzalagun bila dabilen honetan, non agertuko eta herrian azaldu zaigu Kerman. Seguru, euskaraz ongi hitz egiteko aholku onak jaso dituela Maialen Urtzi eta beste herritarrengandik.

latu du Gazte Asanbladak. Larregain sagardotegian izanen da bazkaria eta joan nahi duenak Amaia kafetegian eman beharko du izena. Autobusa ere izanen da, bost euroren truke.



UDALA → DEIALDI PUBLIKOA

Bake epailea izendatzeko deialdia egingo du Udalak

Interesa dutenek udaletxera jo beharko dute

Juana Mari SAIZAR

Bake epaile titularra hautatzeko deialdi publikoa egingo du Udalak. Iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo 15 laneguneko epean, legeak eskatzen dituen baldintzak betetzen dituzten interesatuek udaletxera jo beharko dute, beharrezkoak diren eskabideak aurkezteko.

Frankismoaren kontu ilunak

Frankismo garaiko ume jaioberriak lapurtu eta adopzioan emanak izan ziren hainbat kasuren berri eman da argitaratu. Eta gure herria ere zipristinduta azaldu da gai honekin. Izan ere, familia bat ari da honen ondorioak sufritzen, eta ahalegin guztiak egiten ari da egia ezagutzeko

eta hainbat iluntasun argitzeko. Lerro hauen bidez, animoak eman nahi dizkiegu.

Korrika Txikia

17. Korrika aldame-neko herrietatik pasatzeko delata eta, eskolak Korrika Txikia antolatu zuen apirilaren 8an. Ibaialdetik hasi eta maila bakoitzak lekukoa

eraman zuen, Sastinen, Polainenean, Ugaldenean, okindegian eta Larrea elkarteetan barna pasatuz. Hantxe bukatu zuten ibilbidea.

Jone espetxean

Jone Lozano gaztea espetxeratu egin dute. Martxoaren 21ean atxilotu zuten Frantzia erdialdean, Indre depar-

tamentuan, eta 24an eraman zuten epailearen aurrera deklaratzera. Orduan agindu zuten epaileak kartzelaratzeko. Inork berari idatzi nahi badio hauxe da bere helbidea: *Lozano Miranda, Ione; N° 5331; M.. Lyon Corbas; 40 bld. des Nations; B P 351; 69962 CORBAS CEDEX; FRANCE.*



ARGAZKIA: ANA GONI

Gurasoentzako heziketa saioak

Edurne Epeldek autoestima gaia jorratu zuen joan den apirilaren 7an eskolan, Guraso Elkarteak antolatutako hitzaldi sortaren barne. Orduko saioari ostegun honetan egingen zaio jarraipena, ordu eta toki berean.

EUSKARA

Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako euskal hiztunen lekukotzak biltzen dituen ikus-entzunezkoa kaleratu du Euskarabideak

TTIPI-TTAPA

Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako euskalkie buruzko ikus-entzunezkoa argitaratu du Euskarabidea Euskararen Nafar Institutuak, *Leitzalde euskara bidean* izenburupean. Lekukotzen lagin bat da egingandako lana eta hainbat gai jorratzen dira: familia, kultura, erlijioa, ohiturak eta ogibideak, eguneroko bizimoduko beste alderdi batzuekin batera. Leitzaldekoarekin batera, Aezkoa, Erronkari, Erro eta Esteribarreko euskal hiztunen lekukotzak biltzen dituen beste ikus-entzunezko bat ere argitaratu dute, *Garaioatik Iragara, euskara bidean*, hain zuzen. Euskarabidea da proiektua kudeatu duena eta Labrit multimedia enpresa lana egin duena. 700 ale atara dira DVD formatuan eta 10 eurotan paratu dituzte salgai.

APARAN, S.A.
ERIKOLAJA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagaiak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab.



Tel. 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

ola
SAGARDOTEGIA

- 250 lagun eserita
- Klimatizazioa
- Sagardotegiko menua

102 Meaka auzoa
30304 IRUJAN
Tel. 943 623 130

PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
Nafarroan
orain!

Berria erosi taldea

BAZTAN

OSPAKIZUNAK → ASTEBURUAN LARRAINTZARREN

Baztan eta Ultzamako errugbilarien besta larunbat honetan eginen da

Gauerdian, bidaia agentzian gastatzeko bonoa eta bertako produktuak zozketatuko dira

TTIPI-TTAPA

Baztan Errugbi Taldearentzat ekonomiko-ki ekitaldirik garrantzitsuena den urteroko besta larunbat honetan, apirilak 16, eginen da, beti bezala, Larraintzar-ko frontoian.

21:30ean aratze afaria izanen da eta ondotik kantu zaharrak eta sorpresak izanen dira. Afaltzera joan nahi dutenentzat, apirilaren 12an akitzekoa zen txartelak erosteko epea. 00:30etik aitzinera Jalisko Band taldearekin dantzaldia izanen da, eta gero, AK DJ-a.

Kontzertuaren erdian, eta aurten berrikuntza gisa, zozketak eginen dira, 02:00etan. Alde batetik, 500 euroko bonoa zozketatuko da Divertis bidaia agentzian gastatzeko. Bidaietan, bainuetxeetan, landetxeetan edo hoteletan gastatzeko izanen da. Bertzetik, eskualde-

ko produktuak ere zozketatuko dira.

Halere, hori guztia baino lehen, eskualdeko gaztetxoek errugbian murgiltzeko ariketak egiteko aukera izanen dute arratsaldean.

ORTZIRALEROKO HITZORDUA LEKAROZEN

Errugbian ari nahi dutenei gonbita luzatu die Baztan Errugbi Taldeak. Ortziraleko 20:00etan biltzen dira Lekarozen, eta interesatua dagoe-na harat ager daiteke. Horrez gain, errugbi eskola ere martxan paratua dute. Lekarozen eskaintzen dira klaseak, 18:00etan, Manex eta Peioren eskutik. Honat ere interesa duen edozein ager daiteke.

Xaloa Telebistaren web orri berria

Interneteko atari berria estreinatu du Xaloa Telebistak: www.xalotelebista.com. Emititzen dituen saio gehienak paratu dituzte eskura webgunean: *Ur eta Lur*, *Nire Herrie*, *Mendialdean bizi*, *Bestak*, *Ikusten*, *Erreportajeak*... Albiste laburrek eta astero aldatzen den inkesta baten osatzen dute web orria. Bideoak igotzeko aukera ere badu. Xaloa Telebista 1997an hasi zen emititzen. Herrietako albiste, gertae-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Urtero urtero jendetza biltzen da Larraintzar-ko frontoian, errugbilarien besta honetan.



ARGAZKIA: PELLO SAN MILLAN

Ikastoletako ikasleen topaketa

Lesakako Tantirumairu eta Berako Labiaga ikastolako neska-mutikoeekin batera mendi irteera egin zuten martxoaren 27an Baztan Ikastolako ikasleek. Guraso elkarrekin antolatutako ekimen honetan, guztira 70 bat ikasle elkartu ziren, eta Berako bazterrak ezagutu ondotik, denek elkarrekin bazkaldu zuten. Hurrengo topaketa beharbada Baztanen eginen dute.

ra, magazine eta erreportajeaz gain, orain Nafarroako hainbat he-

rritaro erreportajeak ere egiten ditu *Herriz Herri* proiektuaren barne.

Hauk guztiak ere webgune berrian ikus daitezke.

| | | |
|---|----------|---|
| Okindegia | Jatetxea | |
| Uxoa | | |
| OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan) Especialitatea parrillan erretako jakietan Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labearen erre, goxo goxoa! | | Ordoki Industrialdea Tfn: 948 453 403 31713 ARIZKUN |

KULTURA → APIRILAREN 15ETIK 17RA

Asteburu kultural osatua prestatu du Berroetako Gure Ametsa elkarteak

Ortziraletik igandera hainbat ekitaldi izanen dira

TTIPI-TTAPA

Aurten bosgarren aldiz, Asteburu Kulturala antolatu du Berroetako Gure Ametsa elkarteak, Udalaren, Baztandarren Biltzarren, Beolaren eta Jauregia esnekiak-en laguntzarekin. Ortziral honetan, apirilak 15, hasi eta igandean, hilak 17, akituko dira.

APIRILAK 15, ORTZILERIA

- 17:00etan Saharako errefuxiatuen aldeko sentsibilizazio tailerra, Arantxa Gamioren eskutik.
- 18:00etan txokolatada.
- 20:30ean afaria.
- 21:30ean mus txapelketa. Sariak bi afari Beolan eta Jauregia esnekien produktuak izanen dira.

APIRILAK 16, LARUNBATA

- 11:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 18:00etara sendabelarren ikastaroa Itziar Salegiren eskutik. 15 euro kostako da eta izena emateko deitu 661 015820 edo 659 779892ra.
- 18:00etan ipuin kontaketa Osiorekin.
- 21:00etan bertso eta kantu afaria. Txartelak salgai daude. Aitor Olano Antillaren kantu emaldia eta Bittor eta Amaia Elizagoien bertsolarien saioa izanen dira. Santxotena akordeoilariak alaituko dituzte bazterrak.

APIRILAK 17, IGANDEA

- 11:00etan Nafarroako Herri Kirol jolasen bosgarren eta azken saioa. Baina euria egiten badu, Iruritan jokatu da. Hiru kategoriatan ari dira lehian neska-mutikoak, kimu, haureta kadeteen mailan, eta eskualdekoak ere badira.



ARGAZKIAK: OIANKO GARDE

Bizikletan ere euskararen alde

Astelehenean, hilak 11, pasatzekoa zen Korrika 17ren atarian, hainbat ekitaldi egin dira Baztanen. Martxoaren 27an, erraterako, *Euskarazetamol* antzezlanaren ikusteko aukera izan zen Irurritako Gizarte Bilgunean. Arrakastatsua izan zen, 90 lagun bildu baitziren eta jendeari aunitz gustatu baitzitzaion. Apirilaren 2an, bertzelde, Korrika Besta egin zen. Eguneko ekitaldietako bat Amaiurtik Elizondora egindako bizikleta martxa izan zen eta 30 bat lagun bildu ziren. Elizondon bazkaldu eta gero, arratsaldean fanfarre bertso-poteoan 40 lagun inguru ibili ziren eta gaueko kontzertuekin Gaztetxea bete egin zen.

Kimuen mailan, Igantzik bi talde parte hartzen ari dira—Unanu eta Abelu— eta Baztandik Basaburua. Haurretan eta kadeteetan, bai proba konbinatueta eta bai sokatiran ere, Basaburua da eskualdeko bakarra. Lerro hauek idazterakoan hiru ziren

jokatutako jardunaldiak, eta bai baztandarrek eta bai igantziarrek emaitza onak eskuratuak zituzten orduko. Kimuen mailan, Unanu taldea eta Basaburua ziren sailkapen buruan, eta haurretan, proba konbinatueta bigarrenak ziren baztandarrek.

Sokatiran ere Baztango haurrek ederki moldatzen direla erakutsia dute, B multzoan eurek baitziren aitzinetik. Kadeteetan proba konbinatuan bigarrenak ziren Basaburukoak eta sokatiran, berriz, lehendabizikoak.

- 14:00etan bazkaria

TALLERES BioK BAT
BITXO TAILERRA

Santiago, 10 · ELIZONDO
Tel. 948 580 898 M. 697 105 089

Udaberriko promozioa
MOTOAITZURRAK
300€
tik hasita

BAZTAN

OSPAKIZUNAK → AZOKA ELIZONDON

Udaberriko Feria apirilaren 29an eginen da Elizondon

Goiz eta arratsaldez ekitaldiak izanen dira

TTIPI-TTAPA

Aziendak eta bertze produktuak etxetik edo baserrietik karrikara ateratzeko, apirilean egiten den hitzordu nagusia gainen da. Apirilaren 29an, ortzirala, eginen da Udaberriko Feria. Udalak, Bertizko Partzuergo Turistikokoaren, Elizondoko Herriaren eta Cederna-Garalur elkartearen laguntzarekin antolatu du eguna:

- 10:00etatik aitzinera azienda feria Merkatuko Plazan. Toki berean eginen da ahari lehiaketa ere.
- 10:00etatik 13:30era, bertako produktuen azoka Foru Plazan.
- 11:00etan bildots erretearen erakustaldia Merkatuko Plazan.
- 11:00etan txistulariak.
- 12:00etan Baztango dantzarien saioa.
- 12:30ean txalaparta emanaldia.
- 12:30ean Baztan-Zopen dastatzea.
- 13:30ean ahari lehiaketako sari banaketa Merkatuko Plazan.
- 17:00etatik 19:00etara bertako produktuen feria.
- 17:00etatik 20:00etara dantzaldia.

Kalitate turistikoaren diplomak

Nafarroako Mendialdeko establezimenduek

kalitate turistikoaren konpromisoa hartzeagatik diploma hartu apirilaren 1ean Larraintzarren. Tartean daude Baztangoak ere: Jauregia Etxea I eta II (Aniz), Santxotena Eskultura Parkea (Arizkun), Lizardiko Borda I eta II (Arizkun), Gontxea landa-etxea (Arizkun), Jorge Oteiza Bilduma Museo Etnografikoa (Elizondo), Ipingi (Elizondo), Urruska etxea (Elizondo) eta Zigako Etxezuria landa-etxea (Ziga).

Haur Kantari Jaialdiko finalistak

Apirilaren 2an Elizondon jokatu zen Haur Kantari Jaialdian hainbat izan ziren kantuan aritu ziren neska-mutikoak. Baina horietatik batzuek baino ez dute lortu igande honetan (11:30) Iruñeko Gaiarre antzokian egiten den finalerako txartela. Elizondoko kanporaketatik eskualdeko hauek ariko dira: Iturengo Joare Taldea, Bortzirietako Bortziriak taldea, Lekarozko Leire Onsalo, Berako Larun eta Axuriak



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Baztango Ezkerrak bere zerrenda eta proiektuak aurkeztu ditu

Florentino Goñi buru duen Baztango Ezkerrak bere zerrenda aurkeztu du maiatzaren 22ko udal hauteskundeei begira. «Hainbat sentsibilitate politikotako» jendea biltzen duen taldea dela adierazi dute, honako hauek osatua: Florentino Goñi (Ornoz-Mugairi), Iñigo Iturralde (Elbete), Beñardo Amiano (Amaiur), Elena Arretxea (Elizondo), Resu Elizagoien (Amaiur), Fermin Barazabal (Azpilkuea), Guillermo Etxenike (Iruñita), Unai Apeztegia (Elizondo), Lourdes Oharriz (Elizondo), Isabel Mikelarena (Ornoz-Mugaire), Javier Iturralde (Zoziaia), Maite Goñi (Elizondo) eta Mila Amiano (Elizondo). Euren proiektuetako bat Baztan inguruan industriagune bat sortzea da, eta enpresa ttikien sorreran laguntzea. Aldi berean, «bildutako baliabideak baino gehiago ez gastatzeko» konpromisoa hartu dute. 0-3 urte arteko haurren eskolaratzea, hezkuntzan euskarari lehentasuna ematea eta euskara ikasi nahi duten helduei laguntzea, oinarrizko osasun zerbitzua bermatzea, abeltzainekin elkarlana bilkuren bidez, beharrezkoak diren obra publikoak baino ez... Horiek guztiak aipatu dituzte.

taldeak, Leitzako Leire Erbiti eta Goizuetako Ainhoa Zabaleta.

Parte hartu duten in-guruko bertzeak hauek

dira: Berako Irantzu eta Maddi Mikelarena, Iturengo Do re mi eta Lagun taldeak, Baztango Ikas-tolako Amestuak taldea,

Lekarozko institutuko taldea, Doneztebeko taldea, Lesakako Aitziber Iratzoki eta Kriskitin taldea eta Baztango Xixo taldea.

ANTXITONEA Turismo

24 ingela bainuarekin - Apartaketa
Aire purifikatua eta garmatua - Hain musikala eta TV
Gela berria saskialde eta laur sartzen

Braño Iriarte 16, Elizondo • 948 581 807 • 948 581 853
bostal@antxitonea.com • www.antxitonea.com

ABACDEL
Analisi klinikoak

FIATC • LAGUN ARD • Aresa

Hematologia
Odol biokimika
Erreuma probak
Diabetes
GIB serologia
Tiroide
Hormona-probak
Tumore markatzaileak
Gernu-analisiak
Elikagaien intolerantzia

Ramón González-Vallinas
ANALISI KLINIKOETAN ESPEZIALISTA

Istingorra, 1 - behea • 20008 DONOSTIA
T. 943 210 872 • abacdel@yahoo.es
www.abacdel.com

LEHIAKETA → UDALA ETA FIDAH FUNDAZIOA

Musika bakarlarrien lehiaketa egingen da lehendabiziko aldiz apirilaren 30ean

13-16 urte bitarteko gazteei zuzendua dago

TTIPI-TTAPA

Baztanen eta inguruan berria den ekimena paratu dute martxan Udalak eta FIDAH arte eta humanitateen zabal-kundean ari den nazioarteko fundazioak elkarlanean: Musika Bakarlarrien I. Lehiaketa. Apirilaren 30ean, larunbata, egingen da Arizkunenea Kultur Etxeko Kontzertu Aretoan, goiz eta arratsaldean.

13 eta 16 urte artean dituzten Hego Euskal Herriko gazte guztiak parte har dezakete, eta pianoa, haizea, haria, arpa eta perkusioa izanen dira lehiaketan parte hartzeko onartuko diren musika tresnak.

EGITARAUUA

Egun osoko lehiaketa izanen da. 10:00etan elkartuko dira Arizkunenean, eta partaideek hurrenkera alfabetikoan joko dute. Hasierako partaideetatik batzuk pasatuko dira finalera, eta finalistak Kultur Etxeko iragarki oholean zintzilikatuko dira 14:00etan. Finala, berriz, 16:30ean hasiko da.

Kanporaketan, parte hartzaile bakoitzak gehienez 10 minutuko saioa eskaini beharko du eta finalean gehienez ere 20 minutukoa. Egitaraua norberak aukeratu izanen da.

SARIAK

Bi sari banatuko ditu musika arloan ospea dute hiru irakaslek eta FIDAH-eko kide batek osatutako epaimahaiak. Lehendabiziko saria musika tresnak erosteko 300 euroko balioa duen txartela eta sorterrian kontzertu bat emateko aukera izanen da; bigarren sarituak musika tresnak erosteko 150 euroko balioa duen txartela eskuratuko du.

IZEN-EMATEA

Ortziral honetan, apirilak 15, akituko da izena emateko epea. Interesatuak izen-abizenak, jaiotze data, helbidea eta telefonoa, musika tresna, aurkezten diren obrak eta gurasoen baita posta elektronikoz bidali beharko dituzte fundacionfidah@hotmail.com-era.

Interes falta egotzi dio NaBaik UPNri

UPNk 13 obren inguruan NaBairi informazioa galdetu ondotik, Baztanen alde egiteko «in-



UTZITAKO ARGAZKIA

Herriprograma ekimenaren berri eman du Ezker Abertzaleak

Ezker Abertzaleak Herriprograma ekimeneko ondorio nagusien berri emateko agerraldia egin zuen martxoaren 26an Elizondon. 117 lagunek parte hartu dute ekimenean, «denak ere bertze Baztan bat eraikitzeko eginahalean, abertzalea eta ezkerrekoa, herritarra», aipatu zenez. Lan eta pentsioen erreforma, murrizketa sozial eta egitasmo suntsitzaila garai honetan, Baztanen ere hori bera bertze maila batean ikusi dela uste du Ezker Abertzaleak, «burbuila inmobiliarioa, Aroztegiako proiektu espekulatzaila, zahar etxearen pribatizazioa, hiltegia gainbehera uztea, agintekeria eta herritarrei kasurik ez egitea... Horretan Nabaik eta UPNk bat egin dute; inongo eragozpenik gabe». Baztango egoera hori aldatu beharra dagoelakoan dago Ezker Abertzalea, «bertzenaz, NaBairen eta UPNren politikak Baztanekin akituko dute». Aldaketa bide horretan zazpi zutabe nagusi zehaztu dituzte, bere lana finkatzeko. Lehenik, Baztango erakundeak demokratizatu behar direla uste du, «herritarren parte-hartze zuzen eta etengabea bermatuz». Zerbitzu publikoak pribatizatzeke Udalaren apostuarekin akitu beharra dagoela ere pentsatzen du eta Udal Plan Orokorra herri bakoitzeko beharren arabera egin behar dela. «Lehenbait lehen» eskualdekoekin parekatuko diren udal zerbitzu sozial eraginkor batzuk garatzearen beharra ere azpimarratu du. Baserritar, kontsumitzaile, albaitari, harakin, tratante eta behar den guztiaren iritzia kontuan hartuz, nekazaritza sektoreko eragileen gunea sortu behar dela ere uste du Ezker Abertzaleak eta horrek Baztango garapenaren oinarrietako bat behar duela izan. Baztan eta udal euskaldun bat erdiesteko erabateko konpromisoa eta parekidetasunean eta berdintasunean aitzinatzeke udal plan bat egitea ere ageri dira Ezker Abertzalearen oinarriko ardatzen barrenean, baina horiez gain, herri programan arlo guztietarako proposamenak bildu eta adostu dituzte eta horien lanketan segitzen dute. Zortzi urte udaletik kanpo eduki dituztela gogoratu ondotik, indartsu itzultzeko tenorea iritsi dela iritzi diote.

teres falta» duela leporatu dio NaBaik UPNri. Alderdi erregionalistaren

jarrera «hipokrita» dela adierazi du NABAik, eta legegaldian «ardurak utzi»

dituztela kritikatu du: «urriaz geroztik ez dira deialdietara joaten».

Gierresenea
OSTATU · JATETXEA
Jaki tipikoak · Etxeko giroa
Berrituz auzoa - Tfnoa: 948 582 043
ORONOZ · MUGAIRI

EZKONTZARAKO ESKAINTZA BEREZIA
Andregaiaren erramua + elizako loreak + detaileak eginaz gero **KOTXEKO LOREAK OPARI**
NARBARTE T. 948 59 22 00
Kantuzkoak, detalletak, karnonak, elizako eta karguak, eramanen ditugu. Karpok eta barneko lanberek, zuzaltzak, patata salgai, karnonak, landariek, aukeratu zabaldu.

BAIGORRI

OSPAKIZUNAK → APIRILEKO AZKEN IGANDEAN

Ekitaldiz betea izanen da apirilaren 24ko Nafarroaren Eguna

Egun eta toki berean ospatuko da Aberri Eguna

TTIPI-TTAPA

Apirilaren 24an ospatuko da aurtengo Nafarroaren Eguna. Bertze urte batez indartu egin nahi da Nafarren arteko lotura Baigorriin. 33. edizioa izanen da aurtengoa eta bertze urteetan bezala, ekitaldiz beterik dator.

- 08:00etan herriko aparkalekuan askaria izanen da.
- 11:00etan kabalkada Baigorriko karraketan barna. Baigorri, Txantrea eta Amikuzeko zinganteekin, garaztarrak, Otsagiko dantzariak, joaldunak, Nafarroako gaiteroak, Uztaritzeko txaranga, txistulari eta trikitalariek.
- 12:00etan ikusgarria izanen da Plaza Nagusian: Basaizearen hitza, Karmeleren irrirtzia, jauziak eta Larrain dantza.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Baigorriko plaza jendez beterik Nafarroaren Egunean.

- 13:30ean Aberri Eguneko Ekitaldia Gaztain Errekan. Aurtengo Nafarroaren Eguna Aberri Egunarekin batera ospatuko da. Izan ere, Independentistak sareak Baigorri aukeratu baitu «nafar lurralde batasunaren ikurra» delako.

Gune desberdinetan ere prestatu dituzte ekitzak, eta ez da gitorik faltako egun osoan Baigorriin:

PENTZEAN

- 14:30ean Garazi, Ortzaize, Itsasu eta Baigura ikastolen bazkaria.
- 23:00etan Harakinkia.

PLAZA XOKOAN

- 14:00etan kantuz.

PLAZA NAGUSIAN

- 15:00etan bidaia.
- 17:00etan dantza ikusgarria: Aurtzaka (Beasain, Gipuzkoa), Makilariak, Errege Txopitak

(Larraine, Zuberoa).

- 19:00etan Jauziak Ezpelarekin eta Larrain dantza.
- 21:00etan Holako.

XOKOAN

- 14:00etan Joxpa.

- 16:00etan Txamp's.
- 18:00etan Itziarren semeak.
- 20:00etan Laket.

GAZTAIN ERREKAN

- 14:00etan Nahixan.
- 16:00etan Xutik.
- 18:00etan Kiki Bordaxto.

LAPINTEGIAN

- 15:00etan Willis Drumond.
- 17:00etan Ekintza.

ELIZA AITZINEAN

- 17:00etan Karles Belda eta Conjunt Bada-badoc.

Aipatutakoaz gain, egun osoan izanen dira bertze animazioak: Kuxkuxtu, Mutiko Alaiak, Burrunbazale, Kezka, Triki ta bertsu, Punpeka, Burgaintzi, Zpeizmukaki...

TTIPI-TTAPA
ALDIZKARIA
SARE SOZIALEAN

facebook

www.facebook.com/ttapi.ttapa

EGIN ZAITEZ GURE LAGUN

lñaki Alzuyet
margoak

Pintura dekoratiboa eta industriala • Fataadok • Barnesideak
Dekorasio: estukoak, beldurak
Lakatsa eta barnizatuak kabinan • Pladuna
Nari eta eguna arnodoreekin garbitzen da

Ibar-ttapi etxea - Landibar Auzoa - 31711 URDAZUBI
Tel.: 659 862 417 • pinturasalzuyet@yahoo.es

LARRALDEA
eta
LINDOURRENBORDA

Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea
Txotx denboraldia irekia
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA | Tolleria auzoa • LEKAROZ | 948 452121 • 626 494317
LINDOURRENBORDA | Nabaz auzoa • LESAKA | 948 637212

SOULE

hileta artea

Tfnoa. 948 453 444
Mug.: 629 659 583
ARIZKUN

URDAZUBI

UDALA → AZPIEGITURAK

Udalak ez du zerga berezirik kobratuko Dantxarineako lanengatik

258.089 euro kobratu nahi zituen benta eta gasolindegitik

TTIPI-TTAPA

Dantxarineako zeharbideko lanak ordaintzen laguntzeko borts benta eta gasolindegiri zerga berezien bidez kobratu nahi zizkien 258.089 euroak ezin izanen ditu kobratu Udalak eta bere gain hartu beharko du gastua. Benta eta gasolindegi horietako jabeen alegazioak onartu zituen Udalak urtarilaren 28ko udal batzarrean. Batzarrean aztertu zen txosten juridikoak dioenez, «ezin da zerga berezirik

kobratu dagoeneko eginak dauden obren gain».

Saihesbideko obren inguruko eztabaidaren azken atala da hau, oraingoz. Saihesbidea 2009 hondarrean ireki bazen ere, geroztik Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak proiektuaren adjudikazioa bertan behera utzia du, bi benten jabeek jarritako demandari erantzunez.

Proiektua 3,3 milioi euro gostazen eta Nafarroako Gobernuak 2,5 milioi euro ordaindu zituen. Udalar ordaintzea zegokionaren %90a, 714.232 euro, bentek ordaindu behar zuten eta gehienek halaxe egin zuten. Ordaindu ez zuten borts establezimenduei



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Zeharbide berria 2009 hondarretik dago zabalik.

zerga bereziak jarri zitzaizkien iazko abenduan, alkatearen taldeko aldeko botoekin eta oposizioaren abstentzioarekin hartutako erabakian.

Erabaki horri bi alegazio aurkeztu zitzaizkion. Horietako batek Udalak zerga bereziak ezartzeko behar diren lege-baldintzak ez zituela bete dio. «Zergatik nahi dute merkatari gutti batzuei legezkanpoko obra batzuegatik Udalak duen zorra ordainarazi?» galdetu dute alegazioaren egileek. Gisaberean, zeharbideak komertziantebatzuei mesede egin die-

lakoan daude, sarbide hobeak dituztelako, «baina bertze batzuei kalte egin die, lehendik ziztuzten sarbiderik gabe utzi eta egoera komertziala ahuldu dutelako».

RNE herrian

Apirilaren 9 eta 10ean, Radio Nacional de España (RNE) *No es un día cualquiera* irratsaioa zuzenean egiteko zen plazaatik. Asteburuetako magazin hau Pepa Fernandezek aurkeztua da eta bere ohiko kolaboratzaileak ere herrira etortzeak ziren. Bertze gonbidatuen artean hauek ai-

pa daitezke: Juan Ramon Corpas kultura kontseilaria eta Dantxarineako Merkataritza Elkarteko lehendakaria, Serafin Zubiri abeslari eta idazlea, Montxo Armendariz zinemagilea, Santiago Villares alkatea, Golden Apple Quartet...

Kalitate turistikoaren bi diploma herrian

Kalitatea kudeatzeko sistemaren aldeko apustua egiteagatik Jardunbide Egokien Eskuliburua jaso dute leizeek eta Iri-goiena landa-etxeak. Hilaren 1ean jaso zuten.

edredoi fundak
albornozak
edredoi nordikoak
ohe estalkiak
maindireak
mantelak
kuxinak
toailak

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

UDABERRI-UDAKO KOLEKZIO BERRIA

Tafalla, 13 • IRUÑEA
948 230 634

ZUGARRAMURDI

GIZARTEA → GURASO ELKARTEAREN ESKUTIK

Eskolako haurrek jangela berria izanen dute heldu den ikasturtean

Eskolaren gaineko etxebizitzan egokituko dute auzolanean

Koro eta Margari

2011-2012 ikasturterako Zugarramurgiko eskolako jantokian haur gehiago espero direla eta, Guraso Elkarteak bertze toki batean eman du bazkaltzera.

Hurrengo ikasturtean eskola gainean dagoen etxebizitzan izanen dute haurrek jan-

tokia. Udalak etxebizitza horren zati bat erabiltzeko baimena eman du, eta auzolanean ariko dira gurasoak, heldu den ikasturterako toki hori txukun-txukun gelditzeko.

Bake epaile berria izendatua

Orain dela bi urte Juanito Alti hil geroztik, bake-epailerik gabe egon gara herrian. Orain bete da postu hori, Udalak Margari Etxenike izendatu baitu kargu horretarako. Bere ordezkoa Asun Irazoki izanen da.



ARGAZKIA: KORO ETA MARGARI

Alemaniko iragarki baten grabaketa egin da herrian

Martxoaren 26an grabaketa berezi batean parte hartzeko aukera izan ginuen. Xarma ederrako momentua izan zen: leizean gauez, ilunpean, antortzekin argituz, Hegoak kantua kantatzen... Aktore nagusiak alemanieraz mintzatu ziren, eta guk ez ginuen deus ere konprenitu, baina irudi izigarri ederrak grabatu zituzten, dudarik gabe. Alemanieraz idatzitako *Unberuhrbar* liburuaren publizitatea egiteko zen grabaketa. Liburu hori Tom Knox idazlearena da, eta gaia agoteak dira.

Euskaltzaindia Sarako XXVIII. Idazleen Biltzarrean
apirilaren 25ean, astelehenean

Aurkezpena:

ALEGIAK ETA BERTZE NEURTITZAK
Egilea: Gratien Adema "Zaldubi"
Paratzailea: Henri Duhau
GRAMATIKA EMENDAKINAK
ZUBEROAKO EUSKARAZ
Jüje Etxebarne
KADET ETA BETTIRIÑO
Paratzailea: Manuel Padilla Moyano
EGIATEGIAREN FILOSOFO
HUSKALDUNAREN EKHEIA
2. liburukia
Paratzailea: Tsomin Peillen

www.euskaltzaindia.net

KULTURA → IDAZLEEN BILTZARRAREN BEZPERAN

Saiberri taldea, Erramun Martikorena eta Jean Bordaxar laukotea ariko dira apirilaren 24an elizan

Sarako Ondareak antolatu du kantaldia

Joanes GARCIA

Pasa den martxoaren 4an Claude Labatek eginitako mintzaldiaren arrakasta ikusirik, urtean zehar ekimen gehiago egiten dituztela iragarri du Sarako Ondarea elkarteak. Horren berri martxoaren 31n eman zuen, elkarteko kideak Pleka trinketea bildu baitziren eta primaderan abiatuko dituzten ekimenak aurkeztu baitzituzten. Idazleen Biltzarrean ere bertan izanen direla oroitarazi zuten.

Une garrantzitsuena, apirilaren 24an izanen da. Elkarrekin bizi arazteko kantaldi polit bat antolatu baitute elizan, 18:00etan. Ipar Euskal Herriko hiru herrialdeetatik etorritako artistak entzu-

ten ahalko dira: Sarako Saiberri taldea, Baigorriko Erramun Martikorena eta Xiberuko Jean Bordaxar laukotea.

Sartzeak aurrez eros daitezke sei eurotan Turismo Bulegoan eta egunean bertan erosten ahalko dira, zortzi eurotan.

Hurtzaindegi beharrez galdeketa

Hurtzaindegi beharrez diren biztanleentzat galdeketa abiatu du Herriko Etxeak, eta horren harira, papertxoak banatu ditu. Familiko datuekin batera, etxean 3 urte bitarteko zenbat haur dituzten, oraingo zaintzeko modua zein den eta herrian hurtzaindegi bat muntatzea interesatzen zaien ala ez erantzuteko eskatu da, eta interesatuz gero, euskalduna ala elebiduna nahiko luketen. Papertxoak beteta ortziral honetarako, apirilak 15, Herriko Etxera eraman behar da.

Sarako Izarra final laurdenetan

Apirilaren 3an Sarako Izarra errugbitaldeak balentria egin zuen Azkaingo Kiroleta zelaian. Txapelketako final laurdenetarako sailkatu dira partida on baten ondoren. Saillapen nagusia haien aitzinean bukatu zuten Azkaindarrei 25-22 irabazi zieten joko ederra proposatu. Final laurdenetan, multzoko lider bukatu zuen Arrangoitzeren kontra jokatu du joan etorriko kanporaketan. Lehena Aniamaniako zelaian jokatzekoa zen apirilaren 10ean eta itzulerakoa igande honetan Arrangoitzen.

Urtxintxen lehen garaipena

Goraipatzekoa da eskubaloian urtxintxek lortutako sasoko lehen garaipena Bokaleren kontra. Asteburu gaitz aunitz pasatu eta gero, azke-



nean saria lortu dute.

Oroitzapenetik Bidaiarat Luhuson

Bertze behin ere, *Oroitzapenetik Bidaiarat* ikusgarria arrakastatsua izan da. 100 bat saratarekin osatzen duten taldeak Luhusoko Harri Xuri gela bete zuen. 330 pertsona gain, 40 bat tokirik gabe egon ziren.

Sara Trail

Inoiz baino jende gehiagok parte hartu zuen aurtengo traillean. 636 korrikalariak aro ederra ukan zuten. Aitor Osa txirrindulari ospetsua izan

zenak irabazi zuen denbora ona eginez. Imanol Goni eta Fernando Etxegaraik osatu zuten podiuma. Nesken korrikaldi bikaina ere aipatzekoa da. Lehen neska Oihana Kortazar izan zen.

Barandiaranen liburua

Euskarara eta frantsesera itzulia izan den Joxe Migel Barandiaranen Sarari buruzko liburua Herriko Etxean aurkeztuko du ortziraletan Kultur Erakundeak, Sara eta Ataungo Herriko Etxeek eta Barandiaran fundazioak lagundurik.



SENPERE

KULTURA → DANTZA

Zirikolatz taldeko dantzari ohiak berriz bildu dira eta ikusgarria prestatzen hasi dira

Lagun giroa eta dantza uztartu nahi diutzte garai zaharrak oroitu eta berreskuratzeko

Franck DOLOSOR

Zirikolatz izen eza-guna da Senperen. Oihan zabala izateaz gain, badira 30 urte pasa izen hori daramala herriko euskal dantza taldeak. Elkarte hunek bi adar ditu gaurko egunean, haurrena eta helduena, eta orain hirugarrena sortu da: dantzari ohiena. 80 eta 90eko hamarkadetan dantzan aritu diren senperrak berriz bildu dira elgarrekin dantzatzeko eta ateraldiak egiteko. Dantzari ohi guzietz idekiak diren dantza saioak berriki hasi dira eta orain helburua da 40 bat minutako ikusgarria prestatzea agorrilean eskaintzeko gisan. Betiko dantzak taularatuko dira lehenik (ingurutxo, banako, Beteluren fandangoa...)

bainan gero ez dute baztertu sorkuntzari lotzea. Dantzatzeaz gain, lagun giroa berriz sortu nahi da dantzari ohien artean. Zonbait ateraldi egitea aipatzen dute eta zergatik ez, elgarretaratzeak etxez etxe ibiltzeko ihauteri garaian eta bai abenduaren 31n *Dios te salbe* elgarrekin kantatzeko ere. Ideiarik ez dute falta eta ez da dudarik beren berri izanen duzuela ondoko bestetan...

Bizi Garbiaren web-gune berria

Bizi Garbia, Senpere aldean hondakinez arduratzen den elkar-goak bere web gunea berritu du osoki. Bertan, informazio andana, bideoak, deialdi publikoak eta holakoak irakur daitezke. Pedagogia aintz duen web gunea da Bizi Garbiari buruzko informazio osoa eskaintzen baitu. Ahatik, 9.000 euro gosta den gunea erdara hutsean da ez baita hitz bat ere euskaraz agertzen.



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Zirikolatz taldeko mutikoak Kanbon ospatu zen Dantzari Tiki egunean 80ko hamarkadaren erditsuan.



ARGAZKIA: AUXTIN ZAMORA

Olerkarien Egun osasuntsua

Ohitarri jarraikiz, apirilaren 2an iragan zen aurtengo Olerkarien Eguna Amotzeko Larraldean, Hatsa elkartearen inguruan. Hantxe bilduak ziren Euskal Herri osoko olerkariak, hauen artean Erlaitz, olerkari umetxoena 15 hilabete bainik ez baititu; eta Gouiuri Unanue Arruabarrena olerkari gaztetxoena 17 urte dituen. Auxtin Zamora antolatzailearen arabera, «iduri du duela 13 urte hasi zen bideak bere ardatza oraino geroari buruz fermuki atxiki nahi duela». Apirilaren 15etik 30erat, Maite Toledo eta Jone Telleriaren olerki eta margo erakusketa ikusgai izanen da Larraldean, eta uztail osoan, Agurtzane Anduetzaren *Sorkuntza bizia*. Xehetasunak nahi dituenak sarerat jo beharko du helbide huntarat hain xuxen: <http://olerkarien-eguna1.blogspot.com/>. Gainerat, Olerkarien Eguna ez da oraino bururatua olerkari gaztetxoek ospakizun batzuk aurkeztu nahi dituztelako Lartzabaleko kolegioan, Andoaingo institutoan, Baionako Berrnat Etxepare ikastetxean, Senpereko Ikastolan eta Igantziko eskolan.

ZUBIONDO
Jatetxea
lagardotegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAFARROA

Frutas
Verduras
FRANDONEA, S.L.
FRUITAS DE CALIDAD
BILTEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • 31780 BERA

HERRIKO
ETXER
EDXNTEGIX
CAFÉ DE LA MAIRIE
T: 0559542519
Mozan eta Warrapue
SARA

EZKONTZAK

Juanjo Madariaga Bergara eta **Marina Narumova**, Arantzakoa eta Errusiakoa, apirilaren 2an Arantzan.
Santiago Corera Alecha eta **Tatiana Acosta Fierro**, Donostiakoak, apirilaren 2an Lesakan.
Garikoitz Garzia Lanz eta **Olatz Gereño Eraso**, martxoaren 18an, Leitzan.
Orkatz Imaz Urkia eta **M^a Pilar Ezkurra Ezkurra**, apirilaren 9an Leitzan.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Nahia Belarra Mariezkurrena, Doneztebekoa, martxoaren 26an.
Asier Justin Romero Solano, Doneztebekoa, martxoaren 26an.
Juan David Korta Rodrigues, Doneztebekoa, martxoaren 25ean.
Cristiano Robin Escobar Orellana, Legasakoa, martxoaren 16an.
Julen Lujanbio Eneterreaga, Lesakakoa, martxoaren 15ean.
Kemen Garro Ordoki, Lesakakoa, martxoaren 23an.
Alazne Altxu Mitxelena, Igantzikoa, martxoaren 31n.
Julyana Boyko, Sunbillakoa, martxoaren 20an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Marie Teresse Menard, Sarakoa, martxoaren 14an, 92 urte.
Martin Iturbide, Sarakoa, martxoaren 24an, 86 urte.
Martin Sansiñena, Sarakoa, martxoaren 28an, 35 urte.
Lucinia Gonzalez Gonzalez, Elizondon, martxoaren 25ean, 85 urte.
Aniceto Inda Otegi, Almandozkoa, martxoaren 22an, 82 urte.
Jose Antonio Urroz Grajirena, Beintza-Labaiengoa, martxoaren 27an, 89 urte.
Fermína Almandoz Ibarra, Sunbillakoa, martxoaren 28an, 86 urte.
Jose Antonio Goñi Tapia, Igantzikoa, martxoaren 26an, 89 urte.
M^a Victoria Alberdi Mendiberri, Lekarozkoa, apirilaren 2an, 60 urte.
Maritxu Elizalde Mariezkurrena, Ezkurrakoa, apirilaren 3an, 81 urte.
Carmen Altzuguren Agirre, Berakoa, apirilaren 3an, 88 urte.
Juana Josefa Indakotxea Telletxea, apirilaren 4an, 95 urte.
Ana Elizabeth Juarez Barrientos, Doneztebekoa, apirilaren 4an, 67 urte.
Jose Jabier Danboriena Etxarte, Etxalarkoa, apirilaren 5ena, 61 urte.
Benita Martiarena Etxeberria, Lesakakoa, apirilaren 6an, 91 urte.
Gregorio Iribarren Etxenike, Arizkungoa, apirilaren 6an, 82 urte.



**Jose M^a
BALEZTENA MONACO**

Leitza, 2009ko apirilaren 29an

II. URTEURRENA

Beti irrifarrea zenuen lagunmin gauza denen gainetik aitzinerat ekin bizitzari helduaz gogo guziekin indar hau utzi duzu betiko gurekin maite izan zaitugun familiarekin.

ISABEL EMAZTEA, OLAIA ETA EGOITZ SEME-ALABAK, AMA, ANAI-ARREBAK ETA ILOBAK



**Adriano
RUIZ ROMERO**

Beran, 2011ko apirilaren 6an

Ezin sinetsiz minduta gaudek Ene! Ez dakik noraino lantegian gaur soberan zegok lurruna eta laino. Lankide ona lagunena lagun beti prestu beti sano, ez adiorik besarkada bat sarri arte Adriano.

LAB- LESAKAKO ARCELORMITTAL



**Juanita
ALDAVE LARREA**

Areson, 2011ko martxoaren 20an, 80 urte zituela

Argi bat itzali da hemen lurrean, berri bat piztu da han zeru ederrean. Gure oroimenean izanen zara betiko. Ez agurrik, ez adiorik, gero arte baizik. Amona.

ZURE FAMILIA

MENDI LASTERKETA → AURTEN SEIGARREN ALDIA

636 korrikalarik parte hartu dute aurtengo Sara Korrika Trail lasterketan

Fernando Etxegarai hirugarren helmugaratu da

TIPI-TTAPA | SARA

Seigarren urtez, martxoko azken igandean Sara Korrika Trail lasterketa iragan zen. Marka guziak hautsiz, 636 korrikalarik eman zuten izena proban eta horietatik 535ek lortu dute lasterketa bukatzea.

Itziariko Aitor Osa txirindulari ohia izan zen bizkorrena eta 01:55:33-ko denborarekin, Fernando Etxegaraik zeukan



ARGAZKIA: WWW.SARAKORRIKA.COM

636 lasterkaritik 535 helmugaratu ziren.

marka kasik hiru minutu hobetu zuen. Bigarren postua, Natitxua taldeko Imanol Goñiren-

tzat izan zen (01:57:56) eta hirugarren egin zuen Leintzgain taldean ari den Fernando Etxegarai be-

HELMUGARATUTAKO ESKUALDEKOAK

| | | | |
|------|----------------------|------|-------------------------|
| 3. | F. ETXEGARAI (Bera) | 126. | IRUBETAGOIENA (Senp.) |
| 13. | I. LASAGA (Etxalar) | 155. | T. HAROÇARENE (Senp.) |
| 43. | J. OTXOTEKO (Lesaka) | 157. | T. UNSION (Bera) |
| 49. | P. VACQUIE (Sara) | 175. | D. LAPORTE (Senpere) |
| 50. | P. URRUTI (Sara) | 191. | S. LAURENZENA (Senp.) |
| 69. | A. BERRA (Senpere) | 205. | P. SOUDRE (Senpere) |
| 70. | F. LAXALDE (Senpere) | 240. | M. GOURAUD (Bera) |
| 99. | I. PIKABEA (Bera) | 260. | B. SEIN (Senpere) |
| 106. | P. ITURRIA (Senpere) | 274. | S. LAMOTHE (Senp.) |
| 107. | I. LARRAÑAGA (Bera) | 287. | P. GERARD (Senpere) |
| 115. | B. SEILLAN (Senpere) | 289. | M. SEIN (Senpere) |
| 124. | DENDARIETA (Erratzu) | 308. | D. GENETET (Senpere) |
| | | 315. | G. SEIN (Senpere) |
| | | 321. | T. JAUREGIBERRI (Senp.) |
| | | 325. | P. ETXEGARAI (Senp.) |
| | | 343. | D. ETXEGARAI (Senp.) |
| | | 368. | P. LARRONDE (Sara) |
| | | 372. | P. EZPONDA (Senpere) |
| | | 383. | I. IRAZU (Senpere) |
| | | 387. | J. B. FAGOAGA (Sara) |
| | | 398. | B. JORAJURIA (Senp.) |
| | | 402. | C. OZKOIDI (Senpere) |
| | | 432. | P. ETXEBERRI (Senp.) |
| | | 458. | M. C. JORAJURIA (Senp.) |
| | | 459. | IRUBETAGOIENA (Senp.) |
| | | 467. | M. BERNET (Sara) |
| | | 486. | G. SEIN (Senpere) |
| | | 490. | P. ETIENNE (Senpere) |
| | | 491. | A. ARNAL (Senpere) |
| | | 495. | C. VASSAS (Senpere) |
| | | 511. | R. LABOUX (Senpere) |
| | | 524. | C. GAITTE (Senpere) |

ratarak (01:59:04). 25 kilometroko lasterkaldia bi ordu baino guttiagoan egin zuten bakarrak izan ziren. Leintzgain taldean ari den Iñigo Lasaga etxalartarra, bertalde, 13. postuan sartu zen (02:09:17).

Emakumezkoen artean, Leintzgain Mendi taldeko Oihana Kortazar izan zen bizkorrena (02:27:29), bigarren Abadiño Oihana Aizkorbeitia (02:30:34) izan zen eta podiuma Trintxerpeko Leire Elosegik osatu zuen (02:37:11).

HERRI KIROLAK → TXAPELKETAREN VIII. EDIZIOA

Unai Bertiz sunbildarrak bere marka hobetu du Etxauriko harriaren txapelketan

Bigarren izan da Bertiz, Josetxo Urrutia hirugarren eta Xabier Ariztegi laugarren

TIPI-TTAPA

Aiako Joxeramon Irureta Izeta II.ak (Gipuzkoa) irabazi zuen apirilaren 3an jokatu zen Etxauriko Antzinako Harriaren Txapelketa, Aimar Irigoienek iaz egindako marka –14 jasoal-

di–hobetuz. 15 jasoaldi egin zituen aiarrak.

Baina Unai Bertiz sunbildarrak egindako lana ere azpimarratzeko modukoa da, bikain moldatu baitzen 136 kilo eta erdi dituen harri baldarraren. Bere marka hobetzea ere lortu zuen, hamar jasoaldi eginez. Eskualdeko bertze bi lagun aritu ziren lehian, Josetxo Urrutia leitzarra eta Xabier Ariztegi *Santxin* etxalartarra. Urrutiak bortz jasoaldi egin zituen eta Ariztegi bi.



ARGAZKIAK: OSKAR BARBER

Ezkerretik eskuinera, Unai Bertiz sunbildarra, Josetxo Urrutia leitzarra eta Xabier Ariztegi etxalartarra, Etxauriko harri baldarrarekin.

BERA → MENDI LASTERKETA

530 lasterkarik parte hartuko dute igandean egingen den Berako VII. Mendi Maratoi Erdian

Aldi berean, Nafarroako klub arteko txapelketa erabakiko da

TTIPI-TTAPA | BERA

Manttale Mendi Lasterketa Taldeak dena prest du igande honetan, apirilak 17, egingen den Berako Mendi Maratoi Erdirako. Aurten goazazpigarren edizioa izanen da, eta aldi berean, Nafarroako Mendizale Federazioan izena emana duten taldeentzat, Taldeen Arteko Nafarroako Txapelketa izanen da. Iaz egin zen lehen aldiz txapelketa hau eta orduan Manttale izan zen garaile.

Ohi bezala, ibilbideak 2.714,60 metroko desnibela izanen du eta 21,15 kilometroko luzera, horietatik 9,72 kilometro goiti eta 10,96 beheiti. Ibilbideko puntu gorena Larungo kaxkoa izanen da (900,40 metro) eta baxuena irteera eta helmuga puntuak: Berako herria (31,90 metro).

Aurtengoan parte-hartzaileen kopuruan marka ezarriko da: 530 lagun espero baitutuzte Beran. Martxoaren 14an

korrikalarien esku jarri ziren 450 dortsalak hiru orduz agortu ziren eta Manttaiek bertze 80 gorde ditu korrikalari hoberekoenak gonbidatzeko. Guziak emanak dira. Gainera 150 lagun daude txandaren esperoan, azken orduan norbaitek parte-hartzerik izanen ez balu, lekua hartzeko. Korrikalarien artean, joan den urteko senior eta beteranoetako emakumezko nahiz gizonezko podiumetan izan ziren 12 korrikalariak daude. Horrez gain, Espainiako mendi lasterketa txapelketan hirugarren izan den Nuria Dominguez. Azken orduko aldaketarik ez bada, 45 izanen dira eskualdekoak: 13 beratar, 7 saratar, 6 lesakar, 4 leitar, hiruna aranztar, doneztebar eta etxalartar eta Irurita, Erratzu, Aniz, Urdazubi, Igantzi eta Arraiozko bana.

DORTSALEN BANAKETA ETA IBILBIDEA


Dortsalak banatzen bezperan hasiko dira, apirilak 16. 17:00etatik 18:00etara kiroldegian banatuko dituzte, baita lasterketa egunean ere, 08:00etatik 09:00etara.

Lasterketa, berriz, 09:30ean abiatuko da



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Hilaren 5ean aurkeztu zuten VII. Berako Maratoi Erdia. Manttale taldeko Iñaki Pikabea, Txomin Irazoki eta Rafa Ponbarrekin batera, Martiko enpresako Joseba Martikorena izan zen mahaian.



kiroldegitik eta zazpi hornidura puntu izanen dira. Horrez gain, erretiratzeko hiru gunere bai: Ibardin (6. kilometroa), Usategieta (10. kilometroa) eta Landagaineta (17. kilometroa). Antolatzaileek lehen lasterkaria 11:10 aldera ailegatuko dela aurreikusitako eta azken sailkatuak 12:50erako helmugan egon beharko du. Lasterketa amaitzean, 13:30 aldera, sari banaketa eta oparien zozketa egingen dira, eta luntxa ere izanen da. Dena ongi ateratzeko 150 lagun ariko dira lanean lasterketa egunean.

PALMARESA

Berako Mendi Maratoi Erdia egin den sei edizioetan hainbat txapeldun izan dira: emakumezkoetan, erraterako, Alizia Olazabalek lau aldiz irabazi du (2006, 2007, 2008 eta 2010), Oihana Kortazarrek behin (2009), Sonia Arago nek bezalaxe (2005). Gi-

zonezkoetan, berriz, Didier Zagok irabazi du azken bi edizioetan; Fernando Etxegarai beratarrek ere bitan irabazi du, 2005ean eta 2008ean, eta Ionut Zinkak ere bi aldiz, 2006an eta 2007an.

SARIAK

Gizonezko seniorretan sari hauek banatuko dira:

- 1. sailkatua: 300 euro, trofeoa eta txapela.
- 2.: 200 euro eta trofeoa.
- 3.: 150 euro eta trofeoa.
- 4.: 125 euro eta trofeoa.
- 5.: 100 euro eta trofeoa.

Senior emakumezkoetan hauek izanen dira sariak:

- 1. sailkatua: 250 euro, txapela eta trofeoa.
- 2.: 150 euro eta trofeoa.
- 3.: 100 euro eta trofeoa.
- 4.: 75 euro eta trofeoa.
- 5.: 50 euro eta trofeoa.

Gizonezko eta emakumezko helduetan sari gehiago ere banatuko dira:

- 1. sailkatua: trofeoa eta txapela.

- 2.: trofeoa.
- 3.: trofeoa.

Bertzalde, 2009an Didier Zagok ezarritako marka (01:40:19) hobetzen duen korrikalariak 300 euroko aparteko saria hartuko du eta Ibardingo tarteko helmugatik (6. kilometroa) lehendabizi pasatzen duenak 150 euroko saria jasoko du. Hori bai, sari hau eskuratzeko, helmugara ailegatu beharko da. Helmugan 25. postua eskuratzen duenak ere sari berezia izanen du, hain zuzen, Martiko enpresak emana, sortu zela 25 urte bete direla gogoratuz.

ATERALDIAK LASTERKETA IKUSTEKO

Jendeak Maratoi Erdia hurbiletik segitzeko, mendi irteerak ere egingen dira. Horieta bat 09:00etan abiatuko da kiroldegitik eta Usategietara joanen da, eta bertzea, 08:30ean aterako da Larungo kasko-joateko.

apirilak 14 - 27

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Kontzertuak



LESAKA | 2011.04.16

Lesakako Gazte Eguna borobiltzeko kontzertua

Larunbatean egun osoko ekitaldiak bukatzeko, Arma Tiro Punk, Askatu, Zea Mays, Ze Esatek! eta Bad Sound Systemek kontzertua eskaino dute.

Ospakizunak



IGANTZI | 2011.04.15/17

Udaberriko bestak ekitaldiz gainezka aurtengoan ere

Bertso-afaria, mendi irteera, eskolako ikasleen emanaldiak, mar-go erakusketa eta igandean, herriko dantza taldearentzako dirua biltzeko azoka frontoian.

Gaupasak



LARRAINTZAR | 2011.04.16

Baztan Errugbi Taldearen aldeko gaupasa Ultzaman

Baztan Errugbi Taldearen alde dirua biltzeko gaupasa eginda Ultzaman. Lehenik aretze-zekeor afaria eta gauerditik aitzinera, Jalisko Band eta DJak.

Apirilaren 29ra arte aurkezten ahal dira San Esteban besteta-ko programaren azal lehiaketarako lanak.

LESAKA

Sanferminetako kartel eta programaren azala

Apirilaren 29ra arte aurkezten ahal dira sanferminetako kartelaren eta programaren azal eta kontrazal lehiaketetarako lanak.

Ospakizunak

IGANTZI

Udaberriko bestak

Apirilaren 15etik 17ra ospatuko dira. Xehetasunak 14. orrian.

BERROETA

Asteburu kulturala

Apirilaren 15etik 17ra ospatuko dira. Xehetasunak 31. orrian.

LESAKA

Gazte Eguna

Apirilaren 16an egun osoko ekitaldiak antolatu ditu Gazte Asanbladak eta Arma Tiro Punk, Askatu, Zea Mays, Ze Esatek! eta Bad Sound System taldeen kontzertuarekin bukatuko da. Xehetasunak 12. orrian.

LESAKA

Udaberriko Azoka

Apirilaren 17an egun osoan Lesakako Komertzianteen Elkarte-ko produktuak ikusgai eta erosgai. Xehetasunak 12. orrian.

LARRAINTZAR

Baztan Errugbi Taldearen gaupasa

Apirilaren 16an Baztan Errugbi Taldearen dako dirua biltzeko gaupasa. 21:30ean aratze-zekeor afaria eta gauerditik aitzinera Jalisko Band eta on-

Kontzertuak

LEKAROZ

Elizondoko Abesbatza Txikia parrokian

Apirilaren 17an Elizondoko Abesbatza Txikiak kontzertua eskainiko du parrokian 11:45ean. Antolatzailea: Legateko Auzokideen Elkarte.

ELIZONDO

Joselu Anayak Lurren

Apirilaren 23an Joselu Anayak taldeak kontzertua eskainiko du Lur dantzalekuan, 01:00etatik aitzinera. Sarrera: 9 euro eta kontsumizio bat doan 03.30ak arte.

LESAKA

Musika Eskolaren kontzertua

Apirilaren 15ean Herriko Etxean eskainiko du kontzertua Musika Eskolak, 17:00etan.

SARA

Idazleen Biltzarreko bezperako kantaldia

Apirilaren 24ean Erramun Martikorena, Jean Bordaxar laukotea eta Saiberri taldea ariko dira 18:00etan elizan.

Erakusketak

ELIZONDO

Nafarroako kazetaritzak 100 urte

Apirilaren 3tik maiatzaren 2ra Nafarroako kazetariaren mendeurrena (1911-2011) erakusketa Arizkunenea Kultur Etxean, Nafarroako kazetariak antolatua.

SARA

Eskulan erakusketa

Apirilaren 23an Larungo koloreak eskulan erakusketa ikusgai

izanen da Lurberri gelan (10:00-19:00).

Bertsoak

BERA

Bertso-afaria Agerra Elkarte

Apirilaren 16an bertso-afaria Agerra Mendi Taldearen elkarte, Sebastian Lizaso eta Julio Soto bertsolariekin.

Ikastaroak

AMAIUR

Barazkigintza ekologikoa

Apirilak 19, 26 eta 28 eta maiatzak 3, 5 eta 10. Ikastaroa Otsondo gelan eskainiko da 17:00etatik 20:00etara.

Eskalada ikastaroa

Apirilaren 16an eta maiatzaren 7an eskalada ikastaroa 10 eta 16 urte bitartekoentzat, 09:00etatik 13:00etara.

Lehiaketak

BERA

Sanestebanetako programaren azala

PROPOSAMENA

SARA

Idazleen Biltzarra 28. aldikotz

Euskal Herriko idazleek urteroko hitzordua izanen dute Bazko Astelehenez Sarako kiroldegian. Aurten, Gratien Adema "Zaldubi"ren azken lana edo Jüje Etxebarnek idatzitako *Gramatika emendakina* Zuberoko euskaraz liburuak aurkeztuko dira, bertzeak bertze. Jose Miguel Barandiaranek Sararen gainean egin zuen liburua ere eskuratu ahalko da.



dotik DJak.

SARA

XXVIII. Idazleen Biltzarra

Apirilaren 25ean, Bazko Astelehena, Sarako XXVIII. Idazleen Biltzarra kiroldegian.

Solasaldiak

ETXALAR

Nafarroako konkistari buruz

Apirilaren 15ean Patxi Abasolok Nafarroako konkistaz solasaldia eskainiko du 19:30ean Kultur Etxean.

Mendi irteerak

BAZTAN

Baztango Mendigoizaleen ateraldia

Apirilaren 17an Elizondo-Gartzain-Meaka-Burkaitzea-Petri-Irurita-Elizondo ateraldia egingen dute Baztango Mendigoizaleek (08:00etan).

ZUGARRAMURDI

Atxuriakoak Elizondora

Apirilaren 24an Elizondorat ateraldia egingen dute Atxuria mendiko taldeko kideek.

Zinema

SARA

Ramuntcho filma

Apirilaren 16an *Ramuntcho* filma, 20:30ean. Sartzea: 6 euro. 14 urtez beheitikoentzat doan.

SARA


Karramarro uhartea filma

Apirilaren 20an *Karramarro uhartea* filma Kultur Etxean, 17:00etan. Sarrera doan.

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu: **www.ttipi.net** (agenda)

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua



Dinosaurioen garaian

MATHILDE ELIE

Ttartalo, 2011

Duela hainbat milioi urte gertatu zen. Lurrak ez zuen oraindik ezagutzen dugunaren itxurarik. Tiranosuroen eta bertze izaki batzuen garaia zen. Egun, fosilen ikerketari esker, gure planetako biziaren berri jakin dezakegu. Irudi handiak, egiazkoak baino errealagoak diren berreraikitzeak, mapak eta ikerketen abangoardian dauden informazioak dinosaurioen mundu liluragarriari buruz dena jakiteko. Hori guzia eta gehiago ageri da Bakun itzulpen zerbitzuek euskaratu duten Mathilde Elieren liburuan. 9 urtetik goitiko neska-mutikoei zuzendua badago ere, helduek ere topatuko dute irudi eta kontakizun interesgarriak liburu honetan, modu arin, praktikoa eta ikusgarria. Ilustrazio ederrek, argazki ikusgarriak eta azalpen argiek, dinosaurioen mundua hobeki ezagutzen lagunduko digute.

Musika




Gezurra ez da egia

IMUNTZO ETA BELOKI

Elkar, 2011

Hogei urte bete dira taldearen lehen diskoa argitaratu zenetik. Bitarte honetan mundua ikaragarri aldatu da, musikaren mundua barne. Baina orduan bezala, orain ere, kantuen nortasuna eta interpretatzaileen karisma dira guztiaren oinarri eta motorra. Bi hamarkada iraun duen taldeak sekreturen bat gordetzen du ezkutuan. Kantuak garrantzitsuak dira, baina taldearen jarrera ere ezinbesteko suertatu da. Imuntzo eta Belokiren piezak eta kantak, apartak dira. Alde batetik, trikitiaren tradizioaren jarraitzaile sutsuak izaki, soinu txikiaren mosai-koan, pieza koloretsu bat gehiago ezarri dute. Bestaldetik, kantu modernoak dira, gure gizartearen eta musikaren garapenean beti egunean egoten jakin izan baitute. *Gezurra ez da egia* diskoan zertzeladaz beteriko triki-mundu espresibo anitzaz gozatu ahal izanen dugu. Erromeriaren arima ikaragarri elikatzen duen egiazko jakia da disko honen benetako altorra.

Internet



Komikia eta musika uztartuz

WWW.KKL RD.COM

KKL RD komikia ideia hartu-eman inprobisatu baten ondorioz sortu zen eta, gainera, elkarlan-espazioa izan nahi duen web orrialde honen abiapuntua da. Proiektua egiterakoan sortutako elkar ulertze sakona dela eta, ezin dira zehaztu ez obraren egilea ezta zineak eta komikiak baldintzatutako egileen zerizana ere. Hain zuzen, Joseba Larratxe *Josevisky* & Lazaro Yak Boldo beratarrik dira komikia eta musika uztartzen dituen webgune honen sortzaileak. Josu Igoa eta Julen Irazokik webgunea kudeatzen dute, Joseba Baleztena musikaren musikarekin eta Maialen Garagarzen itzulpenen ekarpenek espazio honen kontzeptua aberastu baino ez dute egingiten. Momentuan lau orriko komiki bat ageri da, baina laister,

Nire aukera



Asier ARBURUA
Etxalarko dendaria

«Familiarekin joateko, hondartza aldeko lasaitasuna gustatzen zait»

Janaridendak libre uzten dion denbora familiar eskaintzea gustatzen zaio Asier Arburua etxalartarrari. Kirola ere gustuko du eta garai batean futbitoan bezalaxe, orain «tarte-ka futboleko edo laisterka» aritzen da ahal duenean, nahi baino guttiago beti ere: «Emaztearekin txandatu, guretzako denbora ere hartzen dugu». Bi asteberutik behin librez izaten duenean ere, «familiarekin Donostian edo Donibane Lohizunen buelta bat ematen dugu, bazkaritxoren bat egin gustora!». Uda partean, landetxetako jendea dela-eta, lan gehiago izaten du janaridendan eta horregatik bertze garai batzuetarako uzten ditu oporrak. Orduan, «hondartza alderako» joera izaten du. «Ezkondu ginenean Mexikon egon ginen, Tenerifen... toki guzietan badeute bere xarma, baina ez nuke bat bereiziko, baina beti hondartzako lasaitasuna gustatzen zaigu» dio etxalartarrak. Zinema ere gustuko du, baina «aspaldian ez dut astirik hartzen».

ETXEBIZITZAK
salgai

EZKURRA. Portonea baserria salgai. Lur eta so-roekin. ☎948615125/646548610.

**ANZABAL**
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

ZUGARRAMURDI

- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatua bere lurra-ekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

BERA. 89 m²ko pisua salgai, 4. solairuan. 3 logela, bainugela, komuna, sukaldea, egongela, trasteleku eta balkoia. Gas naturala, berogailu eta igogailuarekin. ☎681017423 (deitu arratsalde).

SUNBILLA. Karrika Nagusian pisua salgai. 3 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea eta trasteleku haundia. ☎680475419.

DONEZTEBE. Pisua salgai. Sukaldea, komuna, 2 logela, egongela handia eta despentsa. 15 m²ko trasteleku. ☎630160353.

SUNBILLA. Herri erdian etxea salgai. Sotoa, bitzita eta ganbarearekin, s 100 m² solairu bakoitzeko eta baratze kokkor ba-

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@titi.net edo www.titi.net

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 8€ ORDAINDU BEHAR DA ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 10€

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

tekin. 3 logela, jangela, pasillo ederra, sukalde-rekozina eta komun bat. Dena gasolio berogailuarekin. ☎608 672106/634293088.

**ETXEBIZITZAK**
errentan emateko

BERA. Eztegarra pasealekuan pisu mobleztatua errentan emateko. Berogailu zentralarekin. ☎948630270.

BERA. Agerra auzoan pisua errentan emateko. 3 logela, 2 komun, trasteleku eta berogailuarekin. ☎645 238739.

ELGORRIAGA. Pisua

errentan emateko. 3 logela eta berogailuarekin. ☎630 822018.

IRURITA. Etxea errentan emateko. ☎659 764375.

GARAJEAK/LOKALAK
salgai

DONEZTEBE. Belarra jateke-erretogia errentan emateko. ☎948 451797.

BERA. Iturlandeta karrakako bajoetan 49 m²ko garajea salgai. ☎661460267.

BERA. Ostatu salgai. ☎663 708615.

LESAKA. Eltzetako plaza garajeko marra salgai. ☎686 506496.

LANA
eskaintzak

LESAKA. Haur bat zaintzeko pertsona bat behar da. ☎609 834378.

Estetizista behar da ahalik eta abudoen lanean hasteko. ☎661 432630.

LESAKA. Eraikuntza enpresa batek arkitektoa edo arkitekto teknikoa behar du. Bi urteko esperientzia eskatzen da. Obra zuzendaritza eraman, aurrekontuak egin eta bulegoko lana egiteko izanen litzateke. Autocad programa erabiltzen jakitea eta euskara ahoz eta idatziz menperatzea kontuan hartuko da. Curriculumak bidali: *ipl obra@hotmail.com* edo *Otsango industrialdea, 8. Lehen solairu. 31770 Lesaka.*

BERA. Erizaina behar da, gizon edo emakumea, hortz klinika batean lan egiteko. ☎948 631631.

BERA. San Jose zahar etxean ordezkapenerrako sukaldari esperientziaduna behar da. ☎948630104.

LESAKA. Ilepaindegi batean pertsona bat behar da. ☎667 536132.

DANTXARINEA. Azulejo-salmentaren denda batean pertsona bat behar da. Frantsesa eta informatika dakizkiena. Hilabeteetan hiru asteburuz lan egin beharko du. Motibatua izatea eskertuko da. ☎948 599017.

LANA
eskariak

Neska bat adinekoak zaintzen edo beste edozein lanetan ariko litzateke. ☎671 122776.

LEITZA. Neska euskaldun batek haurrak zainduko lituzke. ☎667518404.

LEITZA. Neska batek umeak edo adinekoak zainduko lituzke. ☎695716894.

MOTORRA
salerosketak

Land Rover Defender TD5 salgai, 125.000 kilometroarekin. Bonba gasolioa eta filtroak berriki aldatuak. ☎690 388134 (Xabier).



Renault Grand Space 2.2 DCI Expression sal-

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA
(martxoaren 25etik apirilaren 1era bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

Zerrikumea
(19 kilo): 41,00 € (0,00)

Zerri gizona
1,265 € kilo. (=)

Zerramak:
0,430€ Kg/bizirik. (=)

**BEHIKIA**

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 4,10 (=)

1.koa 3,80 (=)

2.koa 3,56 (=)

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,18 (=)

1.koa 3,90 (=)

2.koa 3,76 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:

urruxak 120,00 (=)

idixkoak 180,00 (=)

Aretze nabarrak:

urruxak 110,00 (=)

idixkoak 130,00 (=)

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 2,85/2,95

Zaldi-behorrak: 1,75/1,95

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 5,50/6,20

8-10 kilokoak: 4,60/4,90

gai, 7 plazakoa. 2003koa. 161.000 kilometro. Egoera onean. ☎655 743991.

Seat Cordoba 1.9, 110 CV eta 2001. urtekoa salgai. Egoera onean. ☎680 313745.



ETXALAR. Yamaha York scooter motorra salgai. Modelo zaharra. ITVa 2012ko ekainera arte pasatua. Prezioa: 350 euro. ☎618 774322.

MOTORRA
tailerrak



MENDAUR MOTOR
948 450333 • DONEZTEBE

SUZUKI
(gasolina eta diesela)
MITSUBISHI
(luze eta laburrak)
TURISMOAK

ANIMALIAK
salgai

Monturako 2 urteko zaldi pintoa salgai. ☎628 538652.

ETXALAR. Bi ahari salgai. ☎667 605033.

GARTZAIN. Azpiko behor tordoa salgai. Hezia. ☎696 765465.



DENETARIK
salerosketak

Yamaha bajua eta **Ampeg AP-15** amplia salgai. Flight case fundarekin biak. ☎685 633 195.



Akazi piketeak salgai. ☎647 276744.

SUNBILLA. Su egurra salgai, lotean edo xehetua. ☎659 867287 /699 461394.

DENETARIK
galdu/aurkituak

GOIZUETA. Kotxeko giltza bat eta etxeko giltza multzo bat agertu dira duela hilabete bat plaza inguruan. ☎948 514006.

Sabueso arrazako ehi-zako zakurra galdu da apirilaren 5ean Legasa,

Azkenean,
harpidetza baino merkeagoa da
TTIPI TXARTELA

- Abokatu duan
- 30 gutxiesten deskontuak
- Hamabostetik zozketa lugetarako
- %20eko despartekatze ematen dituztenak

TTIPI-TTAPAren urteko kuota 31 euro balio du.
TTIPI TXARTELA dutenak, 30 euro pagatuko dute urtearen azkenean, Errentaren Aitorpenarekin 10 euro itzuliko baitzate

Autok eta biakota taleak | Auto eskak | Koi-dendak | Otitak
Argak-dendak | Ampu-dendak | Lantzerak | Ebi-dendak | Pontzak
Estaka Zintzak | Etxetarako | Tindatagak | Haurren gauzak dendak
Liburu-dendak | Zigarra-dendak | Haurtzia eta denak | Opatu-dendak

%10

% 8

% 5

OPARIAK

ALDIZKARIA

BAZTAN

MALERREKA

BORTZIRIAK

LEITZA

Narbarte edo Gaztelu aldean. 4 hilabete ditu eta ez du izenarekin lepokorik. ☎660 702060.

ta zuriaren (Berlingo antzekoa) jabearekin. Gezurra dirudien arren,

kotxe urdinari errua botatzen dio eta zukikusitakoa oso garrantzitsua da. ☎948 503816.

DENETARIK
bertzelakoak

Martxoaren 14an Lekarozko gurutzean gertatutako istripuaren leku-koekin hitz egin nahi dut. Batez ere furgone-

ARANTZA
Zurgindegia.....

- Klase guzietako zurgin lanak
- Eskatu surretakoak konpromisoarik gabe

José Manuel Erandona
Tel. 948 434 068 - 947 879 144
Gentiliza - ARANTZA

BORDA
ISOLAMENDUAK

Termikoak | Akustikoak
Suaren kontrolkoak

Pedak lanak - Erreberitzak
Erekitzak - Industrieriak
Dekorazioak - Sobel modularrak

Tel. 948 437 540 • H. 609 477 277
SOMMA • Instalazioak • Instalazioak

BERAKOUDALA
ALDIZKARIA

OSOKO BILKURAREN AKORDIOA
- HIRIGINTZA -

Udaleko Osoko Bilkuraren akordioa, 2011ko martxoaren 17koa: Udal Plan Orokorraren aldaketa egituratzaila, SNS2 Sektorian (geroko SB2), hasiera batez onesta.

Espediente hau jendeaurrean izanen da hilabete batez, dagokion iragarria NAO.n argitaratu ematen denetik.

Bera, 2011.04.01
ALKATEA, Josu Iratzoki Agirre



ITURENGO UDALA

Herriko Ostaua eta etxebizitza errentan

Iturengo Udalak, 2011ko martxoaren 24an eginiko osoko bilkuran, lehiaketarako deia egitea erabaki zuen, Iturengo Herriko Ostatuko taberna eta jatetxe zerbitzua eta, horrekin batean, Kontseilu karrikako 38an dagoen etxebizitza errentan emateko, berteak berte, baldintza hauei jarraikiz:

- **Errentamenduaren iraupena:** 5 urte, berte 5 urte gehiago luzatzeko aukerarekin.
- **Hileko errenta:** 350 euro gehi B.E.Z.a. Horixe izanen da hasierako prezioa.
- **Eskaintzak aurkezteko epea:** 2011ko apirilaren 26a arte, horretarako onetsitako baldintza administratiboan pleguan adierazten den gisara.
- **Behin-behineko fidantza:** 600 euro.
- **Proposamenak irekitzea:** Udalaren osoko bilkuran irekiko dira, eskaintzak aurkezteko epea amaitutakoan.

Iturenen, bi mila eta hamaikako apirilaren zortzian.
Alkatea, José María Gorosterrazu Elizalde.

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,35€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa; 4) www.ttipi.net bitartez



Leitzako **NAROA OLANO** gure sorgintxoak 3 urte bete ditu apirilaren 1ean. Muxu goxo bat maite zaitugunon partetik. Muso haundi pasa!




Elko, Nevadako **KYLE OWSLEY** Igoak 9 urte beteko ditu apirilaren 20an. Zorionak Lesakako familiaren partetik. Muso haundi bat.



ANARTZ EKZURRA SANZ sunbildarrak urtea bete du apirilaren 9an. Zorionak kixkali Leitzako familia eta bereziki lehengusuen partetik. Muxu bat.



Sunbillako **ANARTZEK** apirilaren 9an urtea bete du. Zorionak gurasoen eta bereziki Ekhiaren partetik.



Aizoaingo **IRAIA REMIREZ PERURENA** 3 urte bete ditu apirilaren 2an. Zorionak iturengo amaxi, osaba-izebak eta bereziki Naroa eta Unaxen partetik.



Gure etxeko sorgin txikia den **IRAIA REMIREZ PERURENA** zoriondu nahi dugu muxu pottolo-pottoloekin, urteak bete dituelako apirilaren 2an. Zorionak ama, aita eta bere ahizpa printzesa den Janireren partetik.



Zorionak Goizuetako gure bi motiko motz hoiri, **ENAITZ JAUREGIK** 3 urte eta **AXEL SALABERRIAK** urtea eginen dituzte-eta apirilaren 12an. Oroitu berendu goxoa ekartzera Urrutineri, fatik gabe.



JONE ORUBE URIA lesakarrak apirilaren 17an urtea beteko du. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik eta oso ondo pasa zure eguna.



Berako **IRATI LAZKANOTEGI MATXIARENAK** apirilaren 11n urteak bete ditu. Muxu haundi bat etxekoan partetik.




EKINE AROZENA ARROSAMENA etxalartarrak 5 urte beteko ditu maiatzaren 29an. Zorionak eta aunitz urtez familiaren partetik.



EKINE AROZENA ARROSAMENA etxalartarrak 5 urte beteko ditu maiatzaren 29an. Zorionak eta berendu goxoa prestatu zure lehengusuentzat!



NAROA SANTESTEBAN OTXANDORENA zubietarrak 9 urte beteko ditu apirilaren 15ean. Zorionak, bereziki Garazi, Uxue, Iker eta Ekaitzen partetik. Osabari ere zorionak!



DANIELA CALVO ARANZADIK apirilaren 26an 4 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat ama, aita, Niko eta Mugerdiko guztien partetik.



Egoi eta ANEK apirilaren 19an eta 13an 5 eta 6 urte beteko dituzte. Zorionak familia guztiaren partetik.



MANUEL BAZTERRIKA eta **HILARIA MUTUBERRIA** iturendarrek apirilaren 17an 59 urte beteko dituzte ezkondurik. Zorionak atautxi eta amaxi, familia osoaren partetik eta bereziki Inaki tikiaren partetik. Muxu haundi bat bikote!



BEÑAT AZPIROZ aranztarrak 3 urte beteko ditu apirilaren 16an. Zorionak eta urte askoan zure arreba Irati, guraso eta familia guztiaren partetik. 3 muxu eder eta ongi pasa.



Zubietako **MIKELE ETXEKOLONEAK** 11 urte bete ditu apirilaren 9an. 11 urte, 11 udaberri, 11 zaletasun, 11 lagun... eta bihotz haundi bat! Zorionak! Atta, ama, Beñat eta Malen.



MARIA LUISA GANBOA sunbildarrak urteak bete ditu apirilaren 13an. Zorionak amaxi! Muxu pottoloa etxekoan partetik eta bereziki Ane eta Aimarren partetik. Prestatu afari goxoa amaxi!



Aunitz urtez eman nahi dizkiogu **ARAITZ MADARIAGA OTEGI** 8 urte beteko dituelako apirilaren 24an. Zorionak familia guztiaren partetik eta bereziki bi bihurri hauen eta Yanireren partetik.



Beintzako **OLAIA MINDEGIA TABERNARI** zorionak Donamariako amaxi, atautxi eta izeba-osabaren partetik, apirilaren 7an urtea bete baitu. Amari kenduko diogu txokolatea. Muxu haundi bat gure printzesari!



Beintzako **OLAIA MINDEGIA TABERNA** etxeko erreginak urtekoa bete du apirilaren 7an. Zorionak eta muxu haundi bat Arantzako amaxi-atautxi eta izeba-osabaren partetik. Attatori kenduko diogu txanpain! Ongi pasa eguna, sorgintxo!



Doneztebeko **ANDER RETEGIK** urtea beteko du apirilaren 21ean. Zorionak eta urte askoan zure anaia Mattin, guraso eta familiaren partetik. Musu haundi bat eta ongi pasa.

EZKONTZA GONBIDAPENAK

100 gonbidapen + 100 sobre
Zuk nahi dituzun bezala PERTSONALIZATUAK





TTIPI TXARTELArekin BETI IRABAZTEN DA!

**DESKONTUAK
ZOKKETAK
ALDIZKARIA
MUSUTRUK**

Eskatu zurea 948 63 54 58 telefonoan

539 ALEKO IRABAZLEAK

- **EREIN 3 LIBURU**
Eskeletoa | **AITOR AROZENA** | Lesaka
Armairuko munstroa | **JOSE LUIS LASARTE** | Bera
Haurjalea | **ISABEL SANZBERRO ITURRIA** | Etxalar
- **ARNASAK CD-a** | **MENTXU PEÑA** | Arantza
- **MARTIKO LOTEA** | **SOKORRO JIMENEZ** | Urdazubi
- **ONDDO TA PUNTO KAMISETA** | **MIKELI OLAETXEA** | Lesaka
- **IBAIZABAL 5 LIBURU** | **Mª TERESA AROZARENA** | Amaiur
- **PUNPALAPLAN CD+DVD** | **MAITE ZELAIETA** | Igantzi

Luditoys

KOSMOJET MAHAI JOLASA
Luditoys argitaletxea
www.luditoys.com

AQUARIVM

2 SARRERA
Donostiako Aquarium-a
www.aquariumtas.com

oninart

KAMISETA BAT
Oninart denda
www.oninart.com

Pirri, Porro eta Marimotots

KAMISETA BAT + CDa
Pirri, Porro eta Marimotots
www.kabiporreta.com

TTIPI SASKIA



DESKONTUAK

- jaione** tindategia
%10, 120tik gorako gastuan
- FOTO MENA**
%10 deskontua kopia digitaletan
- Kimetz**
Balarandenda
%10 kosmetikan
- Optica**
%10, 30tik gorako gastuan
- KATTALINGORRI**
%10eko deskontua



ttipi-
ttapa

948 63 54 58

kulturkari@ttipi.net

ZURE HERRIKO bestak2011

uztailaren 2tik 6ra

UZTAILAK 2 larunbata
9.00 argintzuak | 10.00 eguzkitzuzkand | 13.00 eguzkiak
17.00 argintzuak | 22.00 eguzkitzuzkand | 21.00 eguzkitzuzkand

UZTAILAK 3 igandea
9.00 argintzuak | 10.00 eguzkitzuzkand
17.00 argintzuak | 21.00 eguzkitzuzkand

UZTAILAK 4 astelehena
9.00 argintzuak | 10.00 eguzkitzuzkand
17.00 argintzuak | 21.00 eguzkitzuzkand

UZTAILAK 5 asteartea
9.00 argintzuak | 10.00 eguzkitzuzkand
17.00 argintzuak
21.00 eguzkitzuzkand

UZTAILAK 6 asteazkena
9.00 argintzuak | 10.00 eguzkitzuzkand
17.00 argintzuak
21.00 eguzkitzuzkand

ONGI PASA BESTAK!!!



mundu guziak ikusteko!

kontzertuak
herriko bestak
txapelketak
komertzioak

100 KARTEL A3
KOLORETAN
93 €*

250 KARTEL A3
KOLORETAN
114 €*

* BEZ gabe (%18).
Prezioan sartua dago diseinua,
inprenta eta garraioa.
Epea: 10 lan egun

ttipi-ttapa

mundu guziak ikusteko!

kontzertuak
herriko bestak
txapelketak
komertzioak

100 KARTEL A3
KOLORETAN
93 €*

250 KARTEL A3
KOLORETAN
114 €*

* BEZ gabe (%18).
Prezioan sartua dago diseinua,
inprenta eta garraioa.
Epea: 10 lan egun

ttipi-ttapa

